

hh

hik hasi

GAIA: ZUZENDARITZA TALDEAK
• ELKARRIZKETA: MATILDE SAINZ
• IKASLE ABERTZALEAK-EN EDU-
KIEN ESKULIBURUA • TEORIAK:
LAUWRENCE KOHLBERG



ESPERIENTZIA

Boiseko ikastola

EEBBetan ere euskaraz ikasten



gaia

ZUZENDARITZA TALDEAK

Ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren egikizun-
en, antolaketaren eta abarren inguruko hausnar-
keta hedatzen ari da



eikarrizketa

MATILDE SAINZ

Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterke-
ta eta didaktika tesia egin berri du

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ZUZENDARITZA TALDEAK

ikastetxeetako motor

Euskadiko Eskola Kontseiluaren jardunaldiak, iritziak...

20 elkarriketa

MATILDE SAINZ

26 esperientzia

Ameriketako euskal ikastola

Izarne Garmendia

33 ekarpena

Irakurketa eta idazketa

Ikastolen Elkartearen VIII. Jardunaldiak

35 berriak

Ehige konfederazioaren sorrera, "Hezkuntza sistema eta indarkeria politikoa" jardunaldiak, jaialdiak han eta hemen

36 argitalpenak

39 teoriak

Lauwrence Kohlberg

Conchi Medrano

ADI! Lekuz aldatu gara eta hau da helbide berria:

Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.

20018 DONOSTIA GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.14.08 Fax: 943/ 37.21.54.

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAMGraf!k maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Nikaraguako haurrek (hik hasi) .

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/IV/5. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ESKAINTZA
BEREZIA**



LITERATURA UNIBERTSALA Bilduma Literatura arrakastatsuena euskaraz



1. Jonathan Swift: **Gulliver-en Bidaiak**. *Iñaki Mendigurenek itzulia*
2. Abbé Prévost: **Manon Lescaut**. *Anton Narbaizak itzulia*
3. Anton Txekhov: **Ipuinak**. *Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulia*
4. Mark Twain: **Huckleberry Finn-en abenturak**. *Aintzane Ibarzabalek itzulia*
5. Rudyard Kipling: **Kim**. *Koro Navarrok itzulia*
6. Joseph Conrad: **Ilunbeen bihotzean**. *Iñaki Ibañezek itzulia*
7. Knut Hamsun: **Gosea**. *Juan Mari Mendizabalek itzulia*
8. Leonardo Sciascia: **Hontzaren eguna**. *Koldo Bigurik itzulia*
9. Robert Louis Stevenson: **Altxor uhartea**. *Maria Garikanok itzulia*
10. Truman Capote: **Eskerregite eguneko bisitaria**. *Iñaki Iñurrietak itzulia*
11. Leon Tolstoi: **Ivan Iltxen heriotza**. *Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulia*
12. Miguel de Unamuno: **Abel Sáchez**. *Miren Arratibelek eta Aintzane Atelak itzulia*
13. E.T.A. Hoffman: **Ipuin Fantastikoak**. *Antton Garikanok itzulia*
14. James Joyce: **Artistaren gaztetako portreta**. *Irene Aldasorok itzulia*
15. Jean Cocteau: **Ume terribleak**. *Jose Antonio Sarasolak itzulia*
16. Italo Calvino: **Marcovaldo edo urtaroak hirian**. *Koldo Bigurik itzulia*
17. E.M. Forster: **Aingeruak nekez ausartzen diren tokian**. *Idoia Santamariak itzulia*
18. André Gide: **Inmoralista**. *Imanol Unzurrunzagak itzulia*
19. Jaroslav Hasek: **Xveik soldadu onaren menturak I**. *Karlos Cid Abasolok itzulia*
20. Hermann Hesse: **Peter Camenzind**. *Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulia*
21. Thomas Mann: **Herioa Venezian**. *Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulia*
22. Saul Bellow: **Heldu oirainari**. *Juan Mari Mendizabalek itzulia*
23. J. W.von Goethe: **Hautapen-ahaidetasunak**. *Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulia*
24. Julio Cortázar: **Oktaedroa**. *Gerardo Markuletak itzulia*
25. Eça de Queiroz: **Mandarin zaharra**. *Jesus M^a Lasak itzulia*
26. W. Faulkner: **Hotsa eta ardaila**. *Maria Garikanok itzulia*
27. Cesare Pavese: **Muinoko etxea**. *Koldo Bigurik itzulia*
28. G. Garcia Márquez: **Koronelari ez dio inork idazten**. *Tomas Sarasolak itzulia*
29. Thornton Wilder: **San Luis Reyren zubia**. *Xabier Angulok itzulia*
30. Albert Camus: **Izurria**. *Imanol Tapiak itzulia*

GUZTIRA: 14.967 pzta

Arren, bidali bilduma posta trukez:

Izena eta abizenak

Ikastetxea

Helbidea P.K.

Herria

Salmentak eta Biltegia:

Txori-Erri etorbidea, 46. Izarza industrialdea, 4. moduloa - E letra

48150 SONDIKA (Bizkaia)

Telefonoak 94 453 20 09 / 453 21 74 - Fax 94 453 20 91

editoriala

apirila

Marrubizko muxuak zentsuraren aurka



Takolo, Pirritx eta Porrotx Pailazo Taldearekin hitzartutako hainbat emanaldi bertan behera utzi dituzte zenbait udal eta ikastetxek

Espainiako hedabideek larrutze kanpaina berri bat ipini dute abian. Oraingo honetan Takolo, Pirritx eta Porrotx Pailazo Taldea aukeratu dute. Metodologia, aurrekoetan erabilitako berdina: haien bozgorailuetatik pozoina eta irainak barreiatu lau haizetara.

Ondorioak bat-batekoak izan dira. Zenbait udal eta ikastetxek pailazoe-kin hitzemandako zituzten ekitaldiak bertan behera utzi dituzte, zentsuratu egin dituzte.

Takolo, Pirritx eta Porrotx Pailazo Taldeak 13 urteko ibilbide profesionala du. Urte luze hauetan eskaini dituzten emanaldiak zenbatezinak dira eta hauetatik gehientsuenak ikastetxetan eginikoak dira. Euskarari eta Euskal Hezkuntzari eginiko ekarpenak, seguruenik, ez du merezi duen eskerrik izango, herri honetan gertatzen den hainbat eta hainbat gauzek bezala.

Urte hauetan guztietan haur asko eta askoren begiak ilusioz ñir-ñirka ikusi ditugu, bihotz samur anitz pailazoen kantu eta dantzen erritmoan tau-paka, haur ilara luzeak pailazoen musu koloretsu baten esperoan; masail gorri-urduak harro eta zoriontsu. Eta Takolo, Pirritx eta Porrotxek berdin eskaini dute ilusio hau ikusleak D eredukoak, B eredukoak zein A eredukoak izan, Erriberakoak edo Kostaldekoak izan. Inoren pentsamendu edo ideologiari erreparatu gabe; ilusioa, eta zergatik ez zoriona, ezin bailiteke sailkatu. Takolo, Pirritx eta Porrotx ilusio banatzaile nekaezinak dira, eta lan hori gainera euskaraz egiten dute. Hori ote da bere delitua?

Aurrerantzean haur horiek guztiek zailtasun handiak izango dituzte hain maiteak dituzten pailazoak ikusi eta gozatzeko.

Guk, argiak itzali, arropa koloretsuak erantzi eta aurpegiko pinturak garbitu ondorenean ere Takolo, Pirritx eta Porrotx ezagutzeko eta haiekin ha- maika lan ordu konpartitzeko aukera eta ohorea izan dugu. Eta zinez diogu, beti adiskide prestuak aurkitu ditugu.

Gure txikian diogu ez dela zuzena zenbaitek hartu duten bidea. Haurren irrifarra aurpegitik ezabatu nahi izatea ez dago ongi, ezta irrifar hori euskaraz denean ere. Batzuen txepelkeriak ezin die-digu alaitasuna ukatu. Elkartasun keinuen gainetik eraso honek guztioi lanean jarraitzea eskatzen di- gu, eta gure ikastetxe eta herrietan o- rain arte Takolo, Pirritx eta Porrotxeki- zan duten presentzia defendatzea. Hori zor dizuegu eta zor diegu gure haurrei. Eutsi lanari Takolo, Pirritx eta Porrotx eta zuk ere bai, Aiora!

kronika

Apirilaren 13a arte iraungo du Seaskaren komunikazio kanpainak. Seaskaren irudia hobetzea du helburu kanpainak, eta aldi berean, Seaskaren jarduna ezagutaraztea. Izan ere, merkatu ikerketa bat egin ondoren, hainbat erantzun ikusi dira. Besteak beste, gurasoek haurrak Seaskako ikastoletara ez eramateko lehen arrazoa ikastolen irudi desitxuratua da. Bigarrenik, gurasoek ikastolen ikusmoldea ez dutela ezagutzen. Eta hirugarrenik, guraso askok euskara ez dakitenez, haurrei beren lanetan laguntzeko arazoak izango dituztela pentsatzen dute.

Gauzak horrela, kanpaina honekin ikastolaren hautu pedagogikoa eta haurren ingurugiroa erakutsi nahi dute, eta baita ere Hezkuntza ministerioak egiten duen kontrola ikasgaien eta irakaslaen formazioan. Ikasleek lortzen dituzten emaitzen berri ere ematen ari dira, bai ebaluaketetakoak eta bai baxokoak.



Euskarazko ereduek osasuntsu jarraitzen dute aurrematrikulazioen ostean

Datorren ikasturterako aurrematrikulazio datuak ezagutzera eman dira, eta euskarazko ereduek orain arteko egoerari eustenditoe. EAEn Derrigorrezko Hezkuntzako (3-16 urte) ikasleen %55,5k D ereduan ikasiko du, %22k B ereduan eta A ereduan %22,5a egongo da. D eredia etapa, lurralde eta sare guztietan igo da. Ikastoletan, esaterako, eskaintza bano handiago izan da eskaera, eta gela kontzertatu gehiago eskatuko ditzute eskaera horri erantzun ahal izateko. Guztira 225.058 haur izango dira Derrigorrezko Hezkuntzan jardungo direnak, eta horietatik 16.544

lehenengo aldiz eskolatuko direnak izango dira.

Nafarroan, bertako gobernuko Hezkuntza Departamentuak emandako datuen arabera, D eredia jaitsi egin da lehenengo aldiz. A eredia bere horretan mantendu da eta G igo egin da. Nafarroan 5.000 haurretik gora izango dira 2001-02 ikasturtean, azken hamar urteotako kopururik altuena. Gobernuaren datuen arabera, horietatik %42,6k G ereduan ikasiko du, %29,1ak D ereduan eta %22,9k A ereduan.

Ikastolen Elkarreak datu horietan Erriberako ikastoletako ikasleak sartu gabe daudela ohartarazi du, eta horrek noski, emandako datuak aldatu egiten dituela. Irakaskuntzako erakundeek aurreneko salatu dute gobernuaren amarrua datu horiek ezkartzeko orduan.

Bai Nafarroan eta bai EAEn gizarteak euskararen aldeko hautua egin duela garbi dago. Eraso politikoak behin eta berriro jasaten diren arren, bistan da euskarazko hezkuntza sistema baloratzen dutenak gero eta gehiago direla. Lehen mailetan euskarazko ereduaren presentzia ia hedatu den heinean, gorakoko mailetan ere hedapetzen ari da.

ereduak izango dira nagusi 2001-02an

Askatasuna erdiesteko bidean pentsamendu kritiko, sakona eta jostagarria landu beharra dago.

Fito Rodriguez



Nafar Gobernua aldatzeko egitekotan dabil

Irakaskuntza ez unibertsitariarako foru dekretuaren zirriborroa dela eta, Nafar Gobernua hartzekotan zen zenbait erabaki ezagutarazi zituzten zenbait erakundek. Ondotik, Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak zirriborro hori gaituztu dagoela adieraztea eman du, eta gogor kritikatu du aipatu zirriborroa filtratu izana. Orain beste batekin ari direla lanean esan du. Hortaz, behin betiko foru dekretua prestatzen dihardute. Kontseilariaren adierazpenen erabera, erremu euskaldunetan B eredu bultzatuko dute, eta A eta D ereduak ez dute inolako aldaketarik. Gaur egun Nafarroan B ereduaren hautua egiten dutenak oso gutxi dira; aurtengo au-

rematrikulazioan 14 bakarrik izan dira. Nafarroako Eskola Kontseiluak eredu hori indartzeko gomendio egin zuen iaz, "hura delako elebitasuna bentan zirutatzen duen eredu bakarra".

Bestalde, kontseilariak ukatu egin du Hezkuntza Departamentuak euskarazko ereduak irakasle eraldunak sartzeko erabakita duenik. Eta barne komunikazioa erdaraz bideratzeko asmoa duenik ere ez du esan.

Testu liburuen gaiari dagokionez, Nafarroako Gobernua diru laguntzak onartzean dago erdarazko ikasliburuak euskarara itzul daitezela. Geografia, Historia eta Giza Zientzietako liburuak euskaratuko dira batez ere.

Era berean, gobernuak gogorazi du ikastetxeetan erabiltzen diren ikasliburuek Hezkuntza Departamentuaren oniritzia jaso behar dutela. Horrela, datorren ikasturteari aurrera onepena hori duten testu liburuak baino ez zingo dira erabili ikastetxeetan.

Miguel Sanz presidenteak adierazi du eman duenez, "zenbait testu liburutan Nafarroako errealitatearekin bat ez dotozen edukiak ikusi ditugu, bereziki mapak, eta hori zuzendu beharra dago". Erein, Elkarlanean, Anaya, IUBai-zabal, Zubia-Santillana eta SM argitaletxeak aipatu zituen.

Lanbide Heziketaren egoera oso ona dela adierazi dute Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuak eta Sabin Intxaurre Lan kontseilariak. Azken sei urteotan Lanbide Heziketa hautatzen duten ikasle kopurua %25etik %44ra igo dela adierazi dute. Horrez gain, ikasketak bukatzen dituzten hamarretik ia zortzik enplegua lortzen du bukatu eta bi hilabeteren buruan. Horietatik %13k mugagabeko kontratua lortzen du, baina gainontzekoek ez. Lana topatzeko garaian ez dago desberdintasunik emakumeen eta gizonezkoen artean. Enplegu tasa handiena eraikuntzan, auto industrian eta metalean dago. Bestalde, lanarekin edo lan baldintzekin hain gustura ez daudenak ere badaude. Irakaskuntza pribatuan huelgarako deia luzatu dute ELA, LAB, EILAS, CCOO eta UGT sindikatuek maiatzaren 10erako. Baldintzarik gabeko soldata igoera eskatzen dute, eta horrekin batera irakasle ez direnek (sukaldari, garbitzaile...) baldintza berberak izatea, mutuak, prekarietateari aurre egiteko moduen erregulazioa eta beste zenbait gauza. EAEko ikastolak negoziatuz kanpo daude, hitzarmen propioa baitute. Dena dela, badirudi ELA eta LAB sindikatuen eta Partaide eta Euskal Ikastolen Batzaren arteko negoziatioak ez daudela oso egoera onean momentuz.

Zuzendaritza taldeak

GAIA

ikastetxeetako eragile



Euskadiko Eskola Kontseilua ikastetxe publikoen zuzendaritzarekin lotutako hainbat gairen inguruko hausnarketa bultzatzen jardun da azkenaldian. Horren ondoren etorri dira EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruzko azterlana eta urtarilean burutu ziren hausnarketa jardunaldiak. Agian orain arte asko landu ez den arloa izan da zuzendaritzarena, eta aipatu ekimenek zuzendaria, gurasoak, sindikatuak, ikuskariak eta beste hainbat horretaz hizketan jarraizi dituzte. Gainera, ikasurtea amaitu aurretik, EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeen hauteskundeak egingo direla kontuan hartuz, gaiaren interesgarritasuna areagotu egin da.



Zuzendaritza taldeak

Euskadiko Eskola Kontseiluak, zuzendaritza taldeen funtzionamendu egokiak duen garrantziaz jabeturik, hezkuntza komunitate osoan arazo horren inguruko gogoeta prozesua sustatu du.

Asmo horretan, lehen zeregina EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeen egoeraren diagnostika egitea eta hobetzeko neurri batzuk lehenestea izan zen. Horretarako, zuzendaritza taldeko kideen eta eskola komunitatea osatzen duten gainontzeko kideen iritzia hartu zuen aintzat. Hala, lehen zeregina elkarrizketak egitea izan zen. 24 kideekin bildu ziren gaiaren inguruko iritzia biltzeko; horietako 13 lan horretan eskarmentua duten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zuzendaritza taldeetako kideak ziren, eta gainerako 11 sindikatu eta guraso elkarteetako eta hezkuntza laguntza eta ikuskaritza zerbitzuetako ordezkariak.

Horien iritzia jaso ondoren 77 galderez osatutako inkesta prestatu zuten eta EAEko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietara igorri zen. Erantzun kopurua oso altua izan zen, %50 Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, eta hori baino gehiago Lehen Hezkuntzakoetan.

Prozesu horren ostean EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruzko azterlana izeneko liburuxka argitaratu zen. Elkarrizketak, inkesta eta ondorioak biltzen dira bertan.

Lan horri jarraipena emanez, urtarilaren 25 eta 26an hausnarketa jardunaldiak egin ziren Bilbon. 300 lagun bildu ziren bertan, eta jardunaldien helburu nagusia gogoetarako eta eztabaidarako gunea sortzea izan zen, epe laburrean eta ertainean hobetzeko proposamen errealistak planteatu ahalizateko. Antolatzaileek zein parte-hartzaileek balorazio oso positiboa egin zuten jardunaldien inguruan. Euskal Eskola Kontseiluaren ustez, bere lana bukatu da, eta orain gainontzeko erakundeek jarraitu behar dute lanean atera ziren hobetzeko proposamenak lor daitezten.


Jardunaldien aurrekariak eta egungo egoera

EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldea hiru pertsonen osatzen dute: zuzendariak, ikasketabu-



ruak eta idazkariak. Talde hori hauteskunde prozesu baten ostean hautatzen da. Hala ere, hainbat kasutan inor ez da aurkezten eta gurasoek edota Administrazioak izendatzen dute.

Zergatik gertatzen da hori? Rikardo Ojenbarrena Euskal Eskola Kontseiluko teknika-



dioenez "a-

grian orain arte ez zaio behar adina garrantziki eman zuzendaritzari, eta ez dugu ahaztu behar ikastetxeentzako oso garrantzitsua dela. Horregatik, jardunaldi hauekin horren inguruan sentsibilizatu nahi izan dugu".

Zuzendaritzaren zeregina ikastetxearentzat funtsezkoa dela dio Ojenbarrenak. "Zuzendaritza on baten eragina elkarlanerako ohitura sortzea, bultzatzea eta indartzea da. Ikastetxearen funtzionamenduko alderdi asko bultza eta dinamiza ditzazke".

Orain arte zuzendaritzaren egoera, zeregina eta presentzia nolakoa izan den galdetuta, Ojenbarrenak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen egoera desberdinak azpimarratu ditu. "Orain arteko egoera desberdina izan da nola batean hala bestean. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan beste filosofia bat dago. Orain dela 7 urte inguru konturatu ziren irakasle bakoitzak ezin zuela bere gelara mugatu eta bere kabuz ibili, baizik eta ikastetxe mailan antolatuta eta egin behar zirela gauzak. Horrela sortu ziren etapetako batzordeak eta bilerak, pedagogia arloa koordinatzeko egitura, curriculum antolatze beharra eta abar". Hori guztia bideratzeko Administrazioak

prestakuntza plan intentsiboa sortu zuen, eta irakasleak bildu egiten zirelan arazoez hitz egiteko, gauzak adosteko, planteamenduak elkarjartzeko... Dinamika hori Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan garatu da azken 10 urteotan eta bere ondorioak eduki ditu prozeduretan, harremanetan eta dokumentuetan.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, ordea, ez da horrelakorik gertatu, lan egiteko eta funtzionatzeko ohitura kolektibo hori ez dago hain garatua, eta denbora eta baldintza faltak eragina izan dute. "Horrez gain, beste faktore bat ere aipatu behar da" gehitzen du Ojenbarrenak. "Euskalduntze prozesua, hain zuzen ere. Bigarren Hezkuntzan euskalduntze prozesua Lehen Hezkuntzan baino urte gutxiagotan burutu behar izaten ari da. Hirugarren faktore gisa, irakasle gehienak lizentziatuak izanik, berez ez dute hezkuntza prestakuntza berezirik izan, eta gela mailan irakastaro espezializatuari lehentasuna ematea da ohitura nagusia". Horrek guztiak zuzendaritzaren lana zailtzen du eta ardura kolektiboak hartzeko eragozpenak sortzen ditu. Honekin lotuta, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hautagai falta nabarmena egon da azken urteotan.

Gauzak aldatu egingo direla uste du Ojenbarrenak, eta horretarako lehen urratsak ematen hasi direla zu-

zendaritza taldeak, gurasoak, sindikatuak, Administrazioa eta gainerako erakundeak. "Badakite zuzendaritza taldeak garrantzi handia duela ikastetxearentzat, eta bere hautaketan ikastetxea dela horren ardura hartu behar duena, eta ez Administrazioa".

Jardunaldietan jorratutako gaiak

Jardunaldietan hiru gai nagusi landu ziren: zuzendaritza lana eta zuzendaritza taldearen berritzea, eskumenak eta baliabideak eta prestakuntza eta pizgarriak. Gai bakoitzean aurretik prestatutako txostenak eztabaidatu ziren, eta berauetan hezurramitu zenaren laburpena duzue ondoren goa.

Zuzendaritza lana. Zuzendaritza taldea berritzea

Gai honen barruan lau puntu aztertu ziren.

1.- Zuzendaritza lana ikastetxe publikoetan

Ikastetxe publikoetan ikusten den ahulezietako bat zuzendaritza funtzioak definizio egokirik ez izatea da bere eskuduntza eta konpentsazioetan, eta horrez gain, ez da nahikoa baloratzen Administrazioaren, irakaslearen eta eskola komunitatearen beste kideen aldetik.

Zuzendaritza taldearen funtzioen



G A I A

Zuzendaritza taldeak

ikastetxeetako eragile



definizioak argitu aldera, hainbat gauza aipatu ziren jardunaldietan:

- Zuzendaritza taldeek funtsezko funtzioa betetzen dutela ikusi zen, proiektu komun batean oinarrituta ikastetxe osoaren bateratzaile eta ordezkari eta irakasleen dinamizatzaile baitira hobekuntza lanetan.

- OOG ikastetxeko zuzendaritzaren arduraduna dela eta berau dela hezkuntza jarduera burutzeko eta ikastetxearen baliabideen kudeaketa egiteko akordioak hartzen dituena. Aldiz, zuzendaritza da akordioak betetzeko eta baliabideak antolatzeko eta kudeatzeko azken arduraduna, irakasleen eta ikastetxeko gainerako langileen laguntza izanik.

- Zuzendaritza taldeei hezkuntza komunitate osoa ordezkatzeko dago kiela, eta horretarako sektore guztien partaidetza izan behar dutela.

- Zuzendaritzak propiotzat daukan lan ugari aurrera eramateko berariazko gaitasunak eduki behar dituela.

2.- Zuzendaritza taldeak berri-tzeko prozesua

Gaur egun OOGren bidez hautatzen da zuzendaritza taldea, eta eredu egokitzat jotzen da. Haatik, eredu hori baliagarri izateko beharrezkoa da ikastetxeek onartzea neurri handi batean beraien ardura dela beren burua zuzendaritza karguez hornitzea eta ondorioz, egokiak diren pertsonen karguaz arduratzen laguntzea. Izan ere, zuzendaritza asko izendapenaren sistemaren bidez betetzeak Administrazioaren eta ikastetxeen huts egitea erakusten du.

Oso garrantzitsua da hautagai zereendak zuzendaritza talde osoak osaturik egotea eta horrek lau urterako

proiektua aurkeztea (plan estrategikoa), bertan Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari (IHP) eta Ikastetxearen Ikasketa Proiektuari (IIP) dagokienez hobekuntzak lortzeko bultzatu nahi dituzten bideak planteatuz.

Zuzendaritza taldeen barne trantsizioa lagun dezaketen zenbait neurri azpimarratzen dira: zuzendaritza taldea aldatzerakoan kide guztiak aldi berean ez aldatzea, klaustroaren kideen zati handi batek uneren batean maila ertainetan koordinazio edo kudeaketarako karguren bat onartzea, ikuskaritza berri-ze prozesuetan inplikatzeko eta ateratzen den taldeko kideen batek lehenengo urtean irakastorduen murrizketa izatea sartu berri den taldeari lagundu ahal izateko.

3.- Zuzendaritza eta ikastetxearen planteamendu instituzionalak

Ikastetxearen planteamendu instituzionalak, epe ertain edo luzekoak (hezkuntza eta ikasketa proiektuak) nahiz urte osokoak (urteko plana eta memoria) oso garrantzizkotzat jotzen dira, talde lana gidatzeko eta orientatzeko balio baitute. Gainera, akordio baten ondorio izanik, inplikazioa errazten dute praktikan jartzeko orduan. Hori dela eta, planteamendu instituzionalak oinarritzko tresnak dira zuzendaritza taldeek beren lana bete ahal izateko, betiere burokratizazio arriskuan erortzeko aukera saihestu behar delarik.

4.- Zuzendaritzaren zeregina ikastetxearen antolakuntzan

Zuzendaritza taldeak antolamendu pedagogikoan inplikatzeko funtsezko zeregina da eta areagotu egin beharko litzateke. Zuzendaritzaren zeregina, zuzenean edo bitarteko organoen bidez, hauek izango lirate-

ke: eskola antolamenduaren funtzio-namendu ona eta ikastetxean eta ikasgeletan bizikidetzako giro ona zaintzea, prozesu didaktikoen kalitatea eta ikasle guztiek ikastea bilatuz hezkuntza jarduera arruntaren etengabeko jarraipen eta ebaluazioa egitea, eta hobetzen lagunduko duten proiektu komunak bultzatzea.

Premiei erantzuna emateko, irakasleek talde lana egiteko ordu gehiago eduki eta tresna eta trebetasun eraginkorrak erabili behar dituzte. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan erabilgarri dagoen denbora hobeto aprobetxatu daiteke. Jardunaldietan, aho batez planteatu da beharrezkoa dela irakasleek ikastetxean behar beste denbora egongo direla bermatzea, koordinazio eta antolakuntza lanei aurre egin ahal izateko.

Bigarren Hezkuntzan argi eta garbi ikusten da iritziak banaturik daudela helburu hori lortzeko bideari dagokionez; alde batetik, batzuen ustez, irakasleek astean 30 ordu ikastetxean egon behar dutela dioen araua betetzeak, aipaturiko helburuaren betetzea segurtatzen du, aurretik egin beharreko negoziazioa egin ondoren; beste batzuentzat, berriz, ez.

Eskumenak eta baliabideak
Bigarren gai honen inguruan ere beste lau puntu izan ziren aztergai.

1.- Zuzendaritza eta ikastetxeen autonomiaren esparrua

Parte-hartzaileen iritzietan jasotakoaren arabera, ikastetxeek eta bertako aginte organoek jarduteko gaitasuna autonomia mailaren arabera da. Zuzendaritzak eskumenak behar ditu esleitu zaizkion funtzioak betetzeko eta ikastetxeaz kanpoko erakundeek hartutako erabakien menpe ez egoteko beti.

Autonomiaren lau arloak kontuan hartzen badira, garapen maila desberdinak ikusten dira, non ekonomia eta pedagogia arloetatik hasita beheranzko eskalan ondoren antolamendua agertzen den, eta oso atzean langileen kudeaketarena. Beharrezkotzat jotzen da lau arloetan autonomia maila nahiko altua izatea.

Ikastetxeen autonomia mailak proiektu propioak garatzeko gaitasunaren arabera izan behar du.

Bestalde, Administrazioak ez du hain arau emalea izan behar. Beharrezkoak diren baliabideak aplikatuz ikastetxeak proiektu desberdinak abian jartzera gehiago bultzatzea eskatzen du autonomiak. Ikastetxeen autonomia zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aktiboagoa izan behar du Ikuskaritzak proiektuak eta horien emaitzak ebaluatzeko garaian, bai eta ikastetxeei proiektuak burutzeko eman zaizkien baliabideak kontrolatzekoan ere.

2.- Ikastetxea eta Administrazioa

Ikastetxe publikoek zuzendaritzaren bitartez Administrazioarekin harreman erraz eta egonkorra izan behar dutela aipatu zen. Horrela gerta dadin, Administrazioak ikastetxeen egoera eta proiektuak ondo ezagutu behar ditu eta banaka edo kolektiboki komunikatzeko bide argiak finkatu.

Komenigarria jotzen da ikastetxeek beraientzako ekonomi baliabideak finkatzerakoan parte-hartzea, beste solaskide batzuekin batera, ikastetxea gainditzeko duen negoziazio esparruaren barruan.

Bestetik, Administrazioaren zerbitzuak eta zereginak hobetzeko beharra antzematen da (Ikuskaritza eta gainerako zerbitzuak).

3.- Baliabide ekonomikoen kudeaketa

Diru baliabideen kudeaketari dagokionez, ikusten da ikastetxeek diru baliabideen kudeaketa egiteko Administrazioak erabiliko dituen irizpideak ezagutu behar dituela eta publikoki horien aplikazioaren berri eman.

4.- Langileen kudeaketa

Langileen kudeaketan zuzendari- tzeek eskumen gehiago eta ahalik eta plantilarik egonkorrenak izan behar dituztela azpimarratzen da. Beharrezkotzat jotzen da proiektuetan inplikata dauden irakasleen egonkortasuna bermatzea.

Langileriaren kudeaketarako araudiak norberaren eskubideak gehiegi lehenesten ditu ikastetxeen beharrek alderatuz. Negoziatzaileen arduradun direnez gero, Administrazioak eta sindikatuek langileriaren kudeaketarako irizpide berriak finkatu behar dituzte, irakasleen lan eskubideak eta ikasleen eskubideak hobeto bateratzeko. Irizpideok aplikatzerakoan, eginkizun garrantzitsua eman behar zaie zuzendaritzi, ikastetxe bakoitzaren beharrak behar den bezala horni daitezten.

Prestakuntza eta pizgarriak

Aurreko ataletako eskemari jarraiki, zuzendaritzaren prestakuntza eta pizgarrien gaia ere lau zatitan aztertzen.

1.- Zuzendaritza taldeen prestakuntza

Zuzendaritza taldekoek prestakuntza behar dutela argi adierazi zuten jardunaldietako partaideek. Beraien hitzetan, Hezkuntza Sailaren egitekoa da plan bat antolatu eta bitartekoak bermatzea zuzendaritza funtzioak betetzen dituzten guztiek egin behar duten lan hori aurrera eraman ahal izateko behar den prestakuntza izan dezaten. Prestakuntza horrek bati bat praktikoa izan behar du, eta antolakuntzaren eta kudeaketaren alde teknikoetara eta trebezia sozialen garapenera bideratu behar da.

Baliagarritzat hartzen da Euskal Eskola Publikoaren legearen beste xedapen bat, ikastetxe bateko zu-

zendari lana betetzeko aukeratzen diren pertsonen gutxieneko prestakuntza izan behar dutela esaten duena, gutxienez 100 orduko ikastaro baten parekoa.

2.- Ikastetxeen arteko lankidetzaren sareak

Interesgarriak ikusten dira eskualde bateko, hezkuntza etapa bereko edo antzeko proiektuak garatzen dituzten ikastetxeetako zuzendaritza taldeen arteko sareak, informaziorako, prestakuntzarako eta elkar laguntzeko iturri binainak baitira.

3.-Zuzendaritza taldeentzako pizgarri ekonomikoak

Zuzendari-entzako pizgarri ekonomikoak, aintzatespen eta eskumen maila altuagoarekin batera, beharrezkoak dira, jasotzen den erantzukizuna kontuan izanik. Hori nabarmenagoa da ikastetxe handietan eta kudeaketa maila altua dutenetan.

Gaur egun indarrean dauden pizgarri ekonomikoak erabat eskasak direla uste da, burutzen diren funtzioak kontuan izanik. **EAEen LOPEGCEn ezarri den mailaren finkapena arautu eta indarrean jarri behar da zuzendaritza lana burutu dutenentzat, eta lan hori egin duten denborarekin proportzioan joan beharko du.**

4.- Orduen aldetiko dedikazioa

Zuzendaritza taldeek irakastorduz kanpo nahiko denbora eduki behar dute lanak aurrera eraman ahal izateko, eta denbora horrek ikastetxearen neurrian eta landu behar dituzten arazoaren arabera izan behar du. Orokorrean, ikastetxe ertainetan eta handietan zuzendariak ez lukeela irakaskuntza lanik egin beharko esan da; eta irakaskuntza lana egin nahi izanez gero, astean sei orduetik gora ez. Dena dela, irakaskuntza lan horren murrizketak edo desagertzeak ez du baztertzeko gainerako koordinazio eta kudeaketa karguei dagokiena.

Jardunaldien osteko ondo-ricioak eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren balorazioa

Gai bakoitzaren inguruko eztabaida eta iritzia jasoketaren ondoren, Eus-

kadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek ondorio aipagarrienak azpimarratu ditu:

1. Jardunaldietako parte-hartzaileek bezala, OOGak benetan direnaren eta izan beharko luketenaren artean alde handia dagoela ikusten dugu. Parte-hartze maila txikia eta eraginkortasun eskasa antzematen da taldeko organo horietan. Era berean, zuzendaritza lana hartzeko prest egon litezkeen hautagien kopurua ere urria da. Ikastetxe guztiek, ahal dela, zuzendari talde hautatua izatea garrantzitsua da, eta taldeko organo horietan parte-hartze egoki eta eraginkorra duten esperientziak ezagutaraztea eta sustatzea ere bai.

2. Hezkuntza Proiektua eta Ikasketak Proiektua, baita urteko plana eta memoria ere, eskola elkartearen eta irakasleen lana bideratzeko erreferentzia gisa, ikastetxeetako zuzendaritzentzat, ia aho batez, oso garrantzitsuak direla onartzen dugu. Hezkuntzako Administrazioari behar diren aholkularitza eta laguntzak eskatzen dizkiogu, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan batez ere, guztiek dokumentu horiek burutu ahal ditzaten, eta tresna baliagarriak izan daitezen, bai ikastetxearentzat eta bai Hezkuntza Administrazioaren eskarientzat ere.

3. Ikastetxe bateko zuzendaritza talde lanean oinarritzen da. Horregatik, koordinazio, prestakuntza eta antolakuntza lanetarako, irakasleek behar beste denbora erabiltzea beharrezkoa da ikastetxe guztietan. Helburu hori bermatzeko moduari dagokionez, irakasle guztiek ikastetxeari eskani beharreko asteko 30 orduetako araua Bigarren Hezkuntzan betearaztea eskatzeaz ez ziren ados jarri jardunaldietako parte-hartzaile guztiak. Gure ustez, ez da inolako anbiguetaterik behar arau hori interpretatzeko orduan, eta betetzeko bermearekin heldu behar zaio gaiari, betiere helburua zein den kontuan izanik.

4. Jardunaldietan argi eta garbi ikusi da ikastetxeetako zuzendaritzen eta Hezkuntza Administrazioaren, bai

G A I A

Zuzendaritza taldeak

ikastetxeetako eragile

G

Lurraldekoaren eta bai Autonomikoaren, artean dagoen erlazioa ez dela guztiz egokia. Uste dugu beharrezkoa dela zuzendariak ikastetxeen ordezkari gisa onartzea, eta beraiekin komunikatzeko bide arinak irekitzea, bai banaka ari direnean, bai taldeka ari direnean.

5. Ikusi dugu ikastetxeek autonomia handiagoa eskatzen dutela, eta ondorioz, eskumen berriak beraien proiektuak aurrera eramanez ahal izateko. Guk ere gauza bera uste dugu; autonomia maila desberdinetarako aukera emango duten arau esparruak ezarri behar direla, bakoitzaren beharren eta ahalmenaren arabera. Badakigu autonomia lortzeko modu bakarra ikastetxeetako kultura aldatzea dela. Baina beharrezkoa izango da, baita ere, Hezkuntza Administrazioako kultura aldatzea.

6. Garrantzi berezia du parte-hartzaileek agertu duten identifikazioa elkarlanerako sareak sustatzeko pro-

posamenekin. Elkarlan hori ikastetxeen artekoa eta zuzendaritza taldeen artekoa ere izan daiteke. Zuzendari elkarteek dagokienez, oso denbora gutxian beren eraginkortasuna, ezarpen azkarra eta hezkuntza kalitatea hobetzeko apustu garbia erakutsi dute. Hori dela eta, gizarteko elkarteekin eta Administrazioako estamentuekin solaskide izatea lortu dute, betiere sindikatuei aitortzen zaizkien funtzioak kaltetu gabe. Ondorioetan adierazitakoaren ildotik, zuzendari elkarte horietan duten parte-hartzea arian arian ikastetxeen ordezkari instituzional gisa egitea komeni da.

7. Interea duten talde guztiek (ikastetxeek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eta Administrazioako beste zerbitzuetako arduradunek, gurasoen ordezkari diren elkarteek eta zuzendari elkarteek eta taldeek) jardunaldi hauen ondorioak kon-tuan izatea espero dugu, bakoitzari dagozkion gaietan.



Iritziak

Karmele Bujan

Donostiako Irakasle Eskola irakaslea



“Hezkuntza Zentroyen Zuzendaritza eta Kudeaketa” izeneko jardunaldiak antolatu genituen iazko abenduan. Berorien asmoa unibertsitateko ikasleei ikastetxeetako zuzendaritzaren egoera ezagutaraztea izan zen, bai irakaskuntza formalean eta bai ez-formalean.

Zuzendaritzaren gaia pil-pilean dagoela dirudi, eta administrazioa zein zuzendari elkarteak gai honen inguruan kezkatzen hasi dira. Unibertsitateak ere bere zeregina eta erantzukizuna badituela iruditzen zait, eta horregatik ari gara arlo hori lantzen. Izan ere, irakasle izateko ikasketak egiten ari diren ikasleek Eskola Antolaketa izeneko ikasgai bat badute, baina ez dute inolako praktikarik egiten arlo horren inguruan, hau da, ez dute zuzendaritza praktikarik egiten. Horregatik, antolatu genituen jardunaldiek horretan lan egiten ari diren profesionalak ezagutzeko aukera eman zien ikasleei.

Unibertsitateak zuzendaritza lanak egiteko prestakuntza eskaini behar duela deritzot; zuzendaritza prestakuntzarako lehenengo abiapuntua eskaini behar duela Irakasle Eskolak. Momentu honetan Irakasle ikasketetako ikasgai bat Eskola Antolaketa da, eta horren atal bat Zuzendaritzarena da. Oraindik asko landu gabe dagoen gaia da, baina nik horretan sinesten dut; formazio espezializatua eskaini behar da

zuzendaritza lanak egiten ikasteko.

Berez zuzendaritza taldea zuzendariak, ikasketa buruak eta idazkariak osatzen badute ere, koordinatzaile lanetan ari direnak eta departamendu buruak ere taldeko partaide dira nire ustez. Zuzendaritzaren inguruko gaiak ez dira hiru pertsonatara mugatzen. Gaur egun ikastetxeetan talde lanean aritzeko hainbat lan koordinatu behar dira, eta hiru pertsonak baino gehiagok egiten dute hori guztia. Hiruren artean ezingo lirerateke ikastetxeko proiektuak aurrera eraman. Horregatik, zuzendaritzak askoren partaidetza eskatzen du.

Hori guztia kontuan izan behar dute irakasleek. Ikastetxeak funtzionamendu eraginkorra izan dezan talde bateko partaide direla argi eduki behar dute. Irakasle guztien eskuetan dago antolaketa eta funtzionamendua, baina ardura hartzen duena zuzendaritza taldea da.

Zuzendaritzari ardura hori ematea arbuia egin izan da sarritan. Halako jarrera boteretsuak, aginterazkoak edo nabarmentzen direnak urrun mantendu nahi izan ditugu. Gure dinamika geronek nahi bezala eramatea izan dugu gustuko. Baina zuzendaritzari ardura eta erantzukizun batzuk emateak ez du boterea ematen zaionik esan nahi. Zuzendaritzak besteekin batera aritu behar du, giza harremanetarako eta komunikaziorako bide guztiak irekita eduki behar ditu. Bere taldearekin konektatzea lortu behar du, eta hori da zailena, konektatzea. Nire ustez, ikastetxe guztiek daukate zuzendaritzaren premia. Gero, bakoitzak ikusiko du zein estilokoa izango den, zuzendari autoritarioa edo *laissez faire* estilokoa.

Zuzendaritza prestakuntzari arreta gehiago eskaini behar zaiola defendatzen dut. Ni prestakuntza integralaren alde nago, eta horren barruan zuzendaritza zereginari erantzuteko ibilbide egokia egin beharko litzatekeela uste dut. Adibidez, Irakasle Eskolan zuzendaritzari buruzko ikasgaiak alderdi praktikoa eduki beharko lukete, hots, praktikak egin beharko lirerateke.

Horrek behar bada zuzendari profesionalaren irudia sortuko luke. Iza-

tez, Europan badaude ikasketaz zuzendari profesionalak direnak, eta administrazioaren ordezkari dira. Hemen, ordea, profesionalen irudi hori ez da existitzen. Momentuz zuzendaritza demokratikoa defendatzen da, zuzendaria ikastetxearen ordezkari delarik, eta ez administrazioaren ordezkari. Eredu egokia dela iruditzen zait.

Alfonso Fernandez

Dolores Ibarruri Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko zuzendaria



Ikastetxe publikoetako zuzendaritza faktore klabea da zentro horien garapenerako. Teoriko guztiak ados dauden baieztapena da, eta gainera, eguneroko jardunean garbi ikusten da: zuzendaritza egonkorra kudeatzen dituen zentroak edo zuzendaritza taldeen aldaketak traumarik gabe egiten dutenek barne funtzionamendu hobea dute eta ikasleei ematen dien erantzuna beren beharretara egokituagoa dago.

Sistema publikoan barne demokrazia handia lortu dugu eta momentu honetan zentroetako zuzendaritzak irakasleen eta gainontzeko eskola komunitatearen (gurasoak eta ikasleak) borondatea ordezkatzeko du. Dena den, arriskutsua bihur daiteke zuzendaritzaren funtzioak utzikerian erortzen badira, zentroa bere kasa gidatzen dela pentsatzen bada, eskola komunitateko sektore batzuen eskuetan bakarrik gelditzen bada edo zuzendaritzaren lana gainontzeko irakasleen lanaren balio-kidea dela uste bada. Izan ere, nire ustez, badaude eztabaidatu ezin diren zenbait gai, erantzunak ez ligukeelako inora ere eramango. Adibidez, ikasleei

klasera etortzearen egokitasunaz galde geniezaieke, eta erantzuna jakina izango litzateke (ezezkoa, noski!).

Barne demokrazia maila altu hori hainbat elementurekin bateratzea beharrezkoa da:

- Helburu argiak eta denek ezagutuak. Eskola komunitate osoak balio demokratikoetan oinarritutako prozedura demokratikoen bidez zehazten dira helburu horiek.

- Baliabide materialak eta denbora kudeatzeko eraginkortasun altua.

- Ikasle bakoitzari eta talde-gela bakoitzari ahalik eta erantzunik egokiena emateko esfortzu serioa.

- Nolabaiteko "agintea". Zuzendaritza "aginte" hori galtzen joan da eta hortan zerikusia izan du baliabide pedagogiko eta ekonomikoen eta giza baliabideen kudeaketan gehitu den autonomia.

Aldi berean, nahitaezkoa da zentroak kanpoko kontrola edukitzea. Horrek baliabideen kudeaketa nola bideratzen den norabidetu eta ebaluatu behar du. Ikastetxeko Hezkuntza eta Curriculum Proiektuaren eta eguneroko jardunaren arteko koherentzia ere zaindu behar du.

Kanpoko kontrol horrek lortu behar du zentro bakoitzeko zuzendaritzak, irakasleak eta zentroak berak lanean inplikatzeko duen gaitasunaren arabera erantzuna izatea. Horrekin batera, beharrezkoa izango litzateke erreferentzia minimo batzuk finkatzea eta hortik behera inongo zentrorik ez egotea.

Nire iritzi, horiek dira etorkizuneko lan ildoak sistema publikoak kalitatezko erantzuna eman dezan nahi badugu.

Horrek lan asko eskatzen digu guztioi: zentroek zuzendaritza lanerako gaituenak bultzatu behar dituztela konturatu behar dute (nire ustez, denak ez direlako gai); zuzendaritzek barneko parte-hartzea bultzatu behar dute eta ematen zaizkien errekursoak eraginkorki kudeatu behar dituzte; eta Hezkuntza Sailak eta gainontzeko solaskide sozialek (sindikatuak eta guraso elkarteak) zuzendaritzek eskolan egiten duten lana errekonozitu behar dute ekonomikoki eta kudeaketa gaitasun aldetik.

Zuzendaritza taldeak

ikastetxeetako eragile

G

EAEko ikastetxe publikoetako zuzendariak biltzen dituzten hiru elkarte daude. Batetik, Sarean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeak biltzen dituenak. Bestetik, Gipuzkoa mailan, Bigarren Hezkuntzako institutu etako zuzendariak biltzen dituen BiHe. Eta azkenik, Ikaslan, Lanbide Eskoletako zuzendarien bilgunea. Elkarte horietako bakoitzari beren jardunaren eta zuzendaritza taldeen egoeraren inguruko iritzia eskatu diogu.

Iritziak biltzeko honako galderak luzatu dizkiegu hiru elkartei:

1.- Noiz sortu zen elkarteak? Nork osatzen du? Zein helburu ditu?

2.- Nola ikusten duzue ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren egoera oro har, eta zuen esparruan?

3.- Zer hobetu da azken urteotan? Zer hutsune gelditzen dira?

4.- Nola bete daitezke hutsune horiek?

5.- Zein da zuen elkarteak egin duen lana orain arte? Zein da hementik aurrerako asmoa?

6.- Zer balorazio egiten duzue Euskadiko Eskola Kontseiluaren jardunaldien inguruan?

7.- Nola ikusten dituzue ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren hauteskundeak?

8.- Beste zerbait aipatu nahi al duzue?



Sarean Elkarte

Euskal Eskola Publikoak Sarean

1.- Bere hasiera orain dela 5 urte katu behar da, Hezkuntza Sailak zuzendaritza taldeentzat antolatutako prestakuntza ikastaroen inguruan. Bertan biltutako hainbat lagunek zera ikusi zuten; nahiz eta ikastetxe bakoitzak bere berezitasunak izan, guztietan sortzen ziren arazoak eta zailtasunak oso antzekoak zirela, eskola bakoitzeko ordezkariak beren kabuz ari zirela arazo hauen irtenbideak lortu nahian, eta kasu gehienetan, Administrazioarekin izan beharreko harremanak ez zeukala behar adinako eraginkortasunik. Horregatik harremanak gorpuzten joan ziren eta gerora **Sarean – Euskal Eskola Publikoak Sarean** izango zena abian jarri zen.

Hasieran 30en bat lagun biltzen zituen mugimendua orain hiru urte erakunde gisa antolatua geratu zen. Gaur egun, 100 kideetik gora dauzka eta geure burua EAEko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeen elkarte bezala definitzen dugu. Bere jarduerak guztiak, bereziki urtean bitan antolatzen dituen **topaketak**, irekiak dira, ikastetxe publikoen antolakuntza eta pedagogi lanarekin zerikusirik duen edonorentzat irekiak, alegia.

Bere xedea ikastetxe publikoen hezkuntza zerbitzuaren hobekuntza

bultzatzea da. Horretarako bi esparru nagusi ditu helburu: ikastetxeen arteko harremanak eta hauen eta Administrazioaren arteko komunikazioa.

Hala ere, helburu komunak edo hurbilak dituzten beste elkarrekin harremanak izateari ere arreta berezia jartzen dio eta, ondorioz, hainbat forotan elkarlanean ari gara: Bilgunea, Gunea eta gai jakinak lantzeko (administrariak, jantokiak, arazo lokalak...).

2.- Zuzendaritzaren egoeraren balorazioa ikuspegiaren arabera alda liteke. Emaizari begiratzen badiogu, oro har, lana ondo eta profesionaltasunez egiten dela esango genuke, emaitza egokiak lortzen baitira. Baina, funtzio hau betetzeko behar diren oinarritzko baliabideei begiratu gero, zer hobetu handia daukagula aldarrikatuko genuke. Beraz, zuzendaritzek lan ona egitea gehiago da norbanakoak bere betebeharrari jartzen dion ilusio, arreta eta denboraren ondorio, lan hori burutzeko dituen baldintza eta eskumenei esker baino.

3.- Proiektuak garatu eta ikasleen hezkuntza beharrei erantzun egokia ematzeko ezinbestekoa da ikastetxearen autonomia. Arlo honetan asko hobetu da ikastetxe publikoen egoera, bereziki ekonomia eta pedagogia arloetan. Horiez gain, antolakuntza eta langileen kudeaketarena daude. Guztietan eskuduntza maila areagotu behar bada ere, azken honek luke beharrik nabarmenena. Eremu labainkorra da, langileen berezko eskubideak eta ikasleenak, ikastetxeak eskaintzen duen oinarritzko zerbitzuaren jasotzaile diren legez, uztartu behar baititu.

Edonola ere, gizarteak baliabide gehiago eskaini beharko lioke egunez egun erantzukizun handiagoa egotzen dion eskolari. Ahalmen edo autonomia mailarik hoberena ere antzua da behar adinako baliabiderik ezean.

4.- Esandakoaren haritik biiildotatik egin beharko litzateke aurrera: batetik ikastetxearen eskuduntzak eta baliabideak areagotu, eta bestetik zuzendaritza taldeentzat formakuntza eta pizgarriak hobetu.

5.- Lorpenik handiena lehen aipatutako helburuen bitartez jardutea da. Hau da, sorrerako hutsune hura neurri batean gainditu da. Ikastetxeekin harremanak mantetzeko esparru bat jorratu dugu, bertan elkarrearen batzorde eragilearen ohiko bilerak eta Topaketak kokatuko genituzke. Bestalde, Administrazioarekin oraindik zer hobetua baldin badago ere, solaskidetzarako bidea irekita dago.

Ikastetxeen arteko harremanetarako esparru horretan landutako gaien zerrenda luzea da, baina guztiak ikastetxearen kudeaketa, sistemaren antolakuntza eta pedagogia arloen artean kokatu genituzke.

Hezkuntza Sailarekin izandako harremanen ondorioz hainbat hobekuntza lortu dugu. Honako hauek lirarteke esanguratsuenak (guztiak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan):

- Gutxieneko plantilak nolakoak beharko luketen adostea Sareanen barruan, Hezkuntzari aurkeztu, eta lehen urrats bat ikasturte honetarako eman izatea.

- Administrarien figura beharrezkoa denaz Hezkuntza ohartaraztea eta alorreko beste erakundeekin bere funtzioak adostea. Ondorioz, zeregin hauetan arituko direnen lehen ezarpena eman da ikasturte honetan.

- Premia Planaren ezarpenari dagokionez, 2000 urteko ekipamendutik kendutako herena itzultzea, baliabide informatikoak ikastetxe guztietara banatzea eta informazioa ikastetxeetara lutzatzea bultzatu dugu.

- Horiez gain, aipagarria da, gure ustez, **Sarean**ek sare publikoaren irudia hobetzen egin duen lana hedabideetan.

Etorkizunean landu nahi ditugun gaien artean aipagarrienak hauek lirarteke: Irakasle Eskoletako kurrikuluen inguruko hausnarketa, Informazio eta Komunikazioa Tekniketan (IKT) aditua izango den irakaslearen figuraren beharra eta irakasleria osoarengana heldu beharko duen prestakuntza, irakasle plantilen hobekuntzan urrats berriak ematea, zuzendaritzen egonkortasuna eta horien berriztapena, Eskola

Jantokien Agindua eta berria ez den baina gero eta garrantzi handiagoa hartuko duen beste arazo bat: euskal gizarteak etorkizun hurbilean jasoko duen etorkin andanari behar bezalako erantzuna nola eman.

6.- **Sarean** elkarrearentzat oso albiste pozgarria izan zen EEKk jardunaldi haiek antolatzeke asmoa zuela jakitea. Gai hau, zuzendaritzarena alegia, eskola publikoak egun duen arazorik garrantzitsuenaren izan liteke. Beraz, merezi zuen ikasturte honetan jarri zaion arreta. Aitortu beharra dugu, gainera, oso prestaketa lan ona egin duela erakunde honek, eta hori jardunaldietan nabaritu egin da. Era berean, azpimarragarria da jardunaldiok hainbat elkarrearentzat bultzagarri izan direla, talde iritzia bildu eta horrekin azaltzeko lanketa propioa eragin baitu aurretik. Eta norbanakoarentzat ere aberasgarria izan da, bakoitzaren kezka eta iritzia jaso eta entzuteko parada izan baikenuen.

7.- Teorikoki, helburua ikastetxe bakoitzean hautagaitza bat baino gehiago aurkeztea eta haien artean ikastetxeeko Ordezkapen Organu Gorenak hautatu ahal izatea litzateke. Baina hori gaur egungo egoeratik oso urrun dago. Edonola ere, zentro bakoitzean zeregin hau borondatez eta konpromiso onartuko duen hautagaitza lortu beharko litzateke, eta honek ikastetxearen proiektua eta ikasketa proiektua garatuko litzatekeen plan estrategikoaz aritu beharko luke. Hautagaitza hori lortzea, eskola osoaren lana baldin bada ere, bereziki irakasleen artean landu beharko litzateke.

Ikuspuntu praktikoko batetik, hainbat xehetasunek hautagaitza hori lortzen lagunduko lukete. Adibidez, oso garrantzitsua irizten diogu irtengo den eta sartuko den taldeen artean loturaren bat izateari. Horretarako, irten denak bere eskarmentua sartu berriaren eskueran jartzeko aukera izatea interesgarria litzateke. Ahal izanez gero, talde osoa ez aldatzea ere ona litzateke.

Hauteskundeak ikasturtearen bigarren hiruhilabetean egitea litzateke egokiena. Izan ere, ikasturte amaierak ez



G A I A

Zuzendaritza taldeak

ikastetxeetako eragile

dira batere egokiak hain prozesu sako-
nak behar adinako arretaz lantzeko.
Gainera, horrek sartuko denari bere
burua kokatzen hasteko eta irtengo
den taldearekin hainbat lotura uzta-
rtzeko aukera ematen dio. Era berean,
behar izanez gero, oinarriko forma-
kuntza edo bestelakoren bat jasotzeko
astia izango luke.

Beraz, baldintza egokiak bermatuz
gero, eta hori da lortu behar dena, gaur
egun dagoen hautaketa aukera egokia
litzateke.

8.- Sarean Elkar-teak bat egiten du E-
EKak antolatutako jardunaldietan jaso-
tako ondorioekin. Egoeraren diagno-
sia egingo dago, zailtasunak mugatu dira
eta aurrerabideak proposatu dira. O-
rain, Administrazioan dagoenari, edo
aurki egongo denari, dagokio horiek
kontuan izatea eta egoki kudeatzea. **Sa-
rean**ek hori guztia errealitate bihur da-
din bere ahalegina jarriko du eta bere
esku dagoena eskainiko du.



BiHe

Gipuzkoako Institutuetako Zuzendarien Elkarte

1.- Gipuzkoako institutu-
etako zuzendarien artean bilerak egiteko ohi-
tura aspaldikoa zen. Halere, arrazoi
ezberdinak medio, legez-tatutako era-
kunde izaerarik gabe aritu gara orain
oso gutxira arte. Aurreko ikasturtea-
ren amaieran, noizbait gertatu behar
zuen, biltzen ginenetako batzuk oso
argi ikusi genuen bultzada berria be-
har zuela gure arteko harremanak; eta
horren ondorioz, 2000ko abenduaren
20an osatu genuen Elkarte.

Oraingoz, 25 institutu gara Elkar-
tean, baina laster gehiago izango ga-
relakoan gaude; hain zuzen ere, Lan-
bide Heziketako ikastetxeak ziren eta
orain Batxilergoa ematen duten ikas-
tetxeei elkartekide izan daitezten gon-
bitea pasatzekoak gara, eta gauza be-
ra egin nahi genuke DBH indepen-
dienteeekin.

Helburua nagusienak bi dira:

- Kalitatezko irakaskuntza-ikas-
kuntza prozesuak bultzatzea institu-
tuetan.

- Zuzendarien ordezkari izatea
Administrazioaren eta beste erakun-
de batzuen aurrean.

2.- Hasteko, aitortu behar dugu ez-

berdintasunak nabariak direla ikaste-
txeen artean. Izan dugun arazoetako
bat zuzendaritza karguen egonkorta-
sunik ezarena da, nabarmenagoa a-
gian Bigarren Hezkuntzan. Zenbait
kasutan inor ez zegoen prest ardura
horiek hartzeko eta arrazoiak ugari i-
zan daitezke: karguen zailtasuna, ba-
lorazio eskasa Administrazioaren eta
gizartearen aldetik, pizgarririk eza...

3.- Konturatu gara ikastetxeak be-
rak izan behar duela protagonista ho-
netan guztian, guk geuk hasi behar du-
gula bakoitzak bere eragin esparruan
lana ahalik eta hobekien egiten. Zu-
zendaritza lana eraginkorra izango ba-
da, eta horrek etapa guztietarako balio
du, hiru zutabe-sustengu behar beha-
rrezkoak ditu: taldea, proiektua eta i-
raunkortasuna. Gakoa horretan dago
eta azken urte hauetan urrats sendoak
ematen ari dira bide horretan.

Hutsuneak ere badira oraindik, ja-
kina. Bidea lehen aipatutakoa bada,
hori erraztuko luketen urratsak eman
beharko lituzke Administrazioak: ba-
liabideak, autonomia handiagoa, piz-
garriak... jada horretan ari diren ikas-
tetxeentzat. Eta gainerakoei, bultzada
bat ildo horretara hurbil daitezten.

4.- Batetik, oso garrantzitsua da i-
kastetxeen arteko lan kooperatiboa,
eta horretarako zuzendari elkar-teak
aukera egokia izan daitezke.

Bestetik, Administrazioarekin el-
karlana behar beharrezkoa da, denok
irtengo gara irabazle horrela jokatzeko
badugu.

5.- Gure lehen lana erakunde
martxan jartzea izan da, hori zen aur-
tengo ikasturterako helburuetako bat.
Gainera, EEKren jardunaldietan parte
hartu genuen. Hezkuntza Sailarekin e-
ta hainbat elkarterekin harreman zu-
zenak ditugu: Ikaslan, Sarean, Adi
(Nafarroako Institutuetako Zuzenda-
rien Elkarte)... Ikasturte amaierari be-
gira irakaskuntza-ikas-kuntza proze-
suen kalitatearen inguruan jardunaldia
antolatu nahian gabilta.

6.- Guztiz positibotzat baloratu di-
tugu. Antolakuntza oso egokia izan
zen, beste ikastetxe eta etapetako zu-

zendari eta zuzendaritza taldeetako kideekin izateko aukera ezin hobea izan genuen eta ondorioetan Administrazioari proposamenak egiteko aukera izan genuen. Hurrengo urratsa agintariei dagokie: egindako proposamenak aztertu, baloratu, eta ahal diren neurrian, indarrean jarri.

7.- Maiatz aldera edo egitekoak dira. Administrazioaren zeregina hauteskunde-deialdi txukun bat egitea da, behar diren baliabideak, pizgarriak... eskainiz. Ondoren ikastetxe bakoitzak hausnarketa sakona egin behar du, zuzendaritza talde sendoa eta eraginkorra izatea oso garrantzitsua baita edozein proiektu aurrera aterako bada. Hori dela bidea uste dugu eta ikastetxe gehienek horrela jokatuko dutelakoan gaude.

8.- Geuk, ikastetxeok eman behar ditugu lehen urratsak. Inozoa litzateke geuk egin beharrekoa beste norbaitek egingo digula pentsatzea. Egoetik aritzera pasatu behar dugu, ondorio guztiekin.

Bukatzeo, dei bat luzatu nahi genieke Bizkaiko eta Arabako institutuetako kideei elkarlanean has daitezzen, guztiok batera askoz gehiago egiteko gai izango baikara.



Ikaslan

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen elkarte

1.- Ikaslan Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek osatutako elkarte bezala sortu zen 1993ko maiatzaren 17an; beraz, zortzi urte betetzear dago.

Azken urte hauetan zabaldu da Araba eta Bizkaira, eta horrela, gaur egun Ikaslan Guipuzkoa 25 ikastetxek osatzen dute, Ikaslan Araba 9 ikastetxek eta Ikaslan Bizkaia 21 ikastetxek. Elkarte autonomoak gara, nahiz eta hiruhilero koordinazio bilerak egin hiru zuzendaritzen artean.

Ikastetxe publikoak garenez eta juridikoki Euskal Gobernuko Hezkuntza Sailaren menpean gaudenez, ezinezkoa izan zitzaigun gure hasierako helburua lortzea, hots, Lanbide Heziketako Institutuen elkarte izatea. Horregatik, Lanbide Heziketako zuzendarien elkarte sortu beharrean aurkitu ginen.

Ikaslanen eremua lanbide heziketa da, eta Ikaslaneko partaidea izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ikastetxeko Eskola Kontseiluaren onarpena.
- Ikastetxeak gutxienez lau ziklo hezigarri eman behar ditu.
- Etengabeko prestakuntza eta formazio okupazionala eskaintzea.

Ikaslanen helburuak, ondorengo hauek dira:

- Lanbide heziketako ikastetxe integralak garatzea eskaintza akademikoa zabalduz langileentzako etenga-

beko formazioa eta langabetuentzat formazio okupazionalera.

- Elkarteko partaideen interesak, proiektuak eta proposamenak bideratzea.

- Irakasleriaren etengabeko formazioan inizatiba hartzea, formazio programak irakasleriaren beharrei egokitzeko.

- Elkarteko partaidee, kalitatezko formazioa eman dezaten laguntzea.

- Europako ikastetxeekin izan daitezken harreman eta lankidetzak programak gauzatzen laguntzea.

- Elkarteko ikastetxee, gestio, pertsonal eta ekonomia autonomia izan dezaten aldatibak proposatzea behar den lekuan.

2.- Ikastetxe publikoetako zuzendaritzen egoera nahiko kezagarria da, ikastetxe askotan zuzendaritzak urtero aldatzen dirako eta hori ez da batere ona ez ikastetxearentzat, ez inguruarentzat eta ez Hezkuntza Sailarentzat.

Hezkuntza Sailak eta sindikatuek ez dute behar hainbat baloratu eta bultzatu zuzendaritzen lana, badirudi ez direla konturatzen zuzendaritza egonkor batek duen garrantziaz ikastetxe horrek proiektuak eguneratu eta gauzatzeko, zeren eta urtero aldatzen diren zuzendaritzetan ez dago proiekturik.

Badirudi, ikastetxetako zuzendari- tzeekin ez dagoela nahiko konfiantzarik, eta ondorioz gaur egun malgutasunik gabeko egitura "enkortsetatua" daukagu hezkuntza publikoan.

Errekurtsoak optimizatzen jakingo duen antolakuntza behar dugu eta ez kurtso hasierako zirkularrean eta ikastetxe guztientzat berdin banatzen dituen pertsonal errekurtsoen funtzio- namendua.

Ziur nago, ikasturtean aurrera eman nahi dituen proiektuak kontuan izanik, ikastetxe bakoitzari dagozkion pertsonal errekurtsuak gestionatzen utziko balitzaio, emaitzak askoz ere hobek eta aberasgarriagoak izango liratekela.

Lanbide eskola garrantzitsuenetan



zuzendaritzak nahiko egonkorak dira, eta hori antzematen da ikastetxearen funtzionamenduan. Horretan zeri-kusi handia izan du **Ikaslanek**, zeren eta ikastetxe mota horietan ere zuzendaritza karguen pizgarriak beste ikastetxe publikoen berdinak dira.

3.- Zuzendaritzako lanak dituen dedikazio orduak behar bezala baloratu behar dira, zeren eta ardurak eta konpromisok hartzeko pizgarri ekonomikoak ezin dira izan gaur egungoak. Era berean, ezinezkoa da gaur egun ikastetxe bati eskatzen zaizkion betebeharrak IX. gizaldiko gestio egitura mantenduz lortu nahi izatea.

Gizaldi berri honetako zuzendaritzak ikastetxeko proiektu bultzatzaile, koordinatzaile eta kudeatzaile izan behar du, batez ere ikastetxeko motorra. Eta horrek denak denbora eta proiektuarekiko konpromisoa eskatzen du.

Ikastetxe publikoak Hezkuntza Administrazioaren ardurapean dagoen entitate autonomo bat izan behar du. Ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzailei begira egon behar du (ikasleak, bertako langileria, gurasoak, enpresak, beste ikastetxeak, instituzioak eta abar), prozesuak ebaluatu eta etengabeko hobekuntzan murgildurik, zerbitzu egokia eta eguneratua eman ahal izateko.

4.- Gaur egun lantzen ari garen proiektuak ondorengoak dira:

- **Ikastxekin** (www.gipuzkoa.net/ikastxekin). Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Lan Sailaren laguntzaz. Ikaslan Gipuzkoako ikastetxeetako irakasle guztientzat informatikako ikastaroak %75eko diru laguntzarekin. Helburua hau da: Teknologia eta Informazio Teknologia Berrietan (NTIC) gure ikastetxeetako irakasleria prestatu eta eguneratzea.

- **Emaweb**. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Emakunderen laguntzaz. Langabezia dauden emakume eta etxeoandrentzat Interneteko 55 ikastaro emango ditugu ekaina bitartean.

- **Txekinbide**. Gipuzkoako Foru

Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailaren laguntzaz. Informatikako ikastaroak langabezia dauden pertsonentzat. Ikastaroa amaitu ondoren, praktikak egingo dituzte enpresetan.

- **Esustapen** (www.esustapen.com) Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatua. Hetele, Lanhez eta Ikaslanen izenean, lanbide heziketari dagokion informazioa, helbide interesgarri eta ikastaro interaktiboak arakatzen eta bilatzen ari da Interneten bekadun talde bat.

- **Sarean** (www.ikaslan.hezitek.net/sarean.html). Bruselaseko Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritzako Arrantza Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazal eta Ingurugiro Sailaren laguntzarekin antolatua. Zumaiako Institutuarekin aurrera daramagun proiektua (Ensayo de cría de bogabante y erizos de mar).

- **SAREKA (Kalitatea Hezkuntzan proiektua)** (www.euskadi.net/lanbidez/sareka). Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketa Zuzendaritzaren laguntzarekin antolatua. 1998an martxan ipini genuen proiektu honetan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 41 ikastetxe publikori kalitate sistema ezartzeko aholkularitza eta laguntza ematen zaie. Proiektu honek bere emaitzak eman ditu, eta gaur egun 17 ikastetxe publiko dauzkagu ISO 9002 kalitate ziurtagiriarekin eta beste hiru ikastetxek maiatzerako izango dute ziurtagiria.

- **GARATU (Irakasleriaren formazioa)**. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin. Azkeneko bost urte hauetan parte hartzen dugu irakasleriaren formazio tekniko diseinatzen eta ematen, ezaguera teknikoak eguneratu eta berritu asmoz.

- **SPRI ikastaroak**. Aurten hasi gara

ikastaro mota hauek ematen enpresetako erdi edo goi mailako karguentzat. Lau ikastaro ezberdin eskaintzen dira: Kudeaketa Plana, Kalitate Totala, Marketing Plana eta Produzio Estrategiak.

- **Material teknikoa euskaraz**. Hetele eta Ikaslan elkarrekin lanean ari gara, lanbide heziketan material teknikoa euskaraz izan dezagun. Argital etxeei errentagarri ez izategatik argitaratzen ez dituzten eta heziketa zikloak era egokian irakasteko oso garrantzitsuak zaizkigun material teknikoak euskaratzeko ekimena gauzatu asmoz, hiru lurraldetako Foru Aldundiei eta Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzari dirulaguntzak eskatu dizkiegu proiektua gauzatzeko arren.

6.- Euskadiko Eskola Kontseiluak antolatu dituen jardunaldiak eta ondori bezala ikastetxetan banatu den liburua oso interesgarria dela iruditzen zaigu, bertan hezkuntza munduan murgilduta dauden hainbat zuzendari eta sindikatutako ordezkariak beraien hausnarketa eta iritzia eman dituztelarik. Oinarrizko dokumentu garrantzitsua iruditzen zaigu, ikastetxetako zuzendaritzak duten garrantzia aitortu eta erabakiak hartzeko ahalmen konpetentziak edukiz zuzendaritza indartsuak bultzatzeko abiapuntua bada.

7.- Lehen aipatutakoak betetzen ez badira, orain arteko zuzendaritza hauteskundeentzako antzekoak izango dira. Leku gehienetan inor ez da aurkeztuko eta Hezkuntza Sailak urtebeterako izendatu beharko ditu beste askotan bezala. Gaur egun zuzendaritzek daukaten erantzukizunak, karguak dakarren ordu dedikazioak eta pizgarri urriak, kargu hauetarako oso irakasle gutxi aurkeztea ekar dezakete.

G A I A
Zuzendaritza taldeak
ikastetxeetako eragile

G

matilde sainz

Mondragon Unibertsitateko
irakaslea

E

Testu idatzien barne kohesioak
izugarritzko garrantzia du, kohesio faltak
ulermena oztopatzen baitu



Eskoriatzako Irakasle Eskolan, gaur egun Mondragon Unibertsitatea dena, Hizkuntzen Psikopedagogiako zuzendaria da Matilde Sainz. Bertan 16 urte lanean daramatzen irakasle hau Euskal Filologian doktorea da. Iaz aurkeztu zuen bere tesia, Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika izenburua duena. Hizkuntzaren didaktikan kokatutako tesia da, eta finean, testu idatziak idazteko orduan ikasi eta erabili behar ditugun elementuak zein diren esatera dator.



Zein izan da tesiaren abiapuntua. Zer aztertu duzu zehazki?

Nire helburua betidanik izan da hizkuntzaren didaktikako lan bat egitea, hizkuntzaren didaktikari zuzendutako gauza bat, alegia. Kasu honetan, testu pedagogian oinarritu naiz eta testu generoak aztertzeari ekin diot. Izan ere, hizkuntza batean garatu eta erabiltzen diren hizkuntza moduak biltzen ditu testu generoak. Horregatik testu generoa irakaskuntza/ikas-kuntza ardazteko unitate gisa hartzen dugu. Testu generoek modu ezberdinez funtzionatzen dutenez, bakoitzaren funtzionamendua ezagutu behar da irakaskuntza antolatzeke, hots, bakoitzaren kontestua, antolaketa, testualizazio mekanismoak... Hori guztia ikasi eta sistematizatu egin behar da, betiere ikaslearen egoeratik abiatuta.

Horrela, nire ikerketa egiteko euskarazko azalpenezko testuak hautatu eta 6. mailako ikasleen azalpenezko testuak aztertu ditut.

Nire lanean bi zati daude: bata didaktikoa, eta bestea hizkuntzalaritzari dagokiona. Bigarren zati horretan kokatzen dira azalpenezko testuak, eta lehenengoan 6. mailako ikasleekin egin dudana ikerketa.

Zergatik hautatu dituzu azalpenezko testuak eta zergatik 6. mailako ikasleak?

6. maila hautatzeko arrazoia izan zen Lehen Hezkuntzako azken maila dela. Eta azalpenezko testuak hautatu ditut, beste edozein testu mota aukera nezakeen bezala. Euskaraz azalpenezko testua ikertu gabe zegoen, hau da, ez genekien nola funtzionatzen

zuen, eta hori jorratzeko aitzakia izan dut lan honetan. Testu mota honekin nire lana norabide teoriko konkretu batera bideratu dut: hizkuntza ikasi eta irakatsi behar dugula, eta beraz, genero konkretu batean. Ez dugu orokorrean idazten ikasi behar, testu mota bakoitza baizik.

Aurrera jo baino lehen goazen kontzeptuak argitzera. Nola definitzen duzu azalpenezko testua?

Azalpenezko testuan igorlearen eta hartzailearen artean desoreka dago jakintza mailan. Testua idazten duena pertsona aditua dela esango genuke, gai horretaz dakiena. Baina buruan hartzaile bat du, gai horretaz bera baino gutxiago dakiena, eta berak jakintza maila edo gai hori hartzaileari adierazi nahi dio.

Dena dela, nik aztertu ditudan azalpenezko testuek badute beste ezaugarri bat ere; ezaugarri formala, entziklopedietan agertzen dena. Dibulgazio testua dela esango genuke, ez da aldizkari espezializatueta aurkitzen dena, entziklopedietan baizik. Horregatik, nik aztertu ditudan testuak 1991-98 bitartean argitaratutako entziklopedietatik hartu ditut.

Testu horiek, aipatu ezaugarriez gain, beste bat ere eduki behar zuten nire lanerako: prozesu bat adierazi behar zuten. Adibidez, nola sortzen edo egiten diren hodeiak, energia, kautxua, landareak, pospoluak... Testu mota horietan gaia konstantea da. Esaterako, hodeiei buruz hitz egiten ari bada, nahikotan jasoko da hodei hitza, errepikatu egingo da, ordezkapen baten bidez eskuratuko da, ize-nordain baten bidez... hori da, hain zuzen ere, nik aztertu dudana; gai konstante horiek nola berreskuratzen diren, hots, linguistikoki zein elementuren bitartez.

Orduan, zure ikerlanaren objektuak azalpenezko testuak izanik, zer egin duzu testu horiekin?

Hasteko, entziklopedietako 60 azalpenezko testu aztertu ditut. Testu

Jakinda
euskarazko
azalpenezko
testuetan nola
funtzionatzen
duen kohesioak,
6. mailako
ikasleen
testuetan
fenomeno bera
nola garatzen
den aztertu
dut

kanonikoak deitu diet horiei, eta euren funtzionamendua aztertu dut. Hau da, testuaren barne kohesioa; ideiak nola elkarlotzen diren testuan. Kohesioa lortzeko bitarteko edo mekanismo batzuk erabiltzen dira, anaforak, nagusiki. Unitate linguistiko horiek dira bereziki aztertu ditudanak 60 testu horietan. Euskarazko azalpenezko testuetan izen kohesioa nola gauzatzen den ikertu dut.

Horrela, jakinda euskarazko azalpenezko testuetan nola funtzionatzen duen kohesioak, 6. mailako ikasleen testuetan fenomeno bera nola garatzen den aztertu dut.

Nolakoa izan da 6. mailako ikasleekin egin duzun ikerketa? Zer egin duzu eta zein urrats eman dituzu?

Eskola bereko 6. mailako bi talde aukeratu nituen: bata talde esperimentalak deituko duguna, eta bestea kontrol taldea. Ezertan hasi aurretik denek azalpenezko testu bana idatzi zuten, aurretestua deituko dioguna. Horretarako, kontserba, eta konkretuki melokotoia ur-azukretan, nola egiten den erakusten zuen bideo bat ikusi zuten. Ikasleek apunteak hartu zituzten eta hortik ateratako informazioarekin entziklopediarako testua idatzi zuten.

Ondoren, talde esperimentalak azalpenezko testua lantzen duen sekuentzia didaktikoa jorratu zuen. Irakasleak hilabete eta erdian landu zuen nik prestatutako aipatu sekuentzia didaktikoa. Bitartean, kontrol taldeak ohiko programarekin jarraitu zuen.

Eta azkenik, bi taldetako ikasleek berriz ere azalpenezko testua idatzi zuten, ondotestua deituko dioguna. Bien arteko konparaketak egin eta zenbait ondorio atera ditut nik.

Sekuentzia didaktiko hori izan da bi taldeen arteko desberdintasuna. Nolakoa da proposatzen duzun sekuentzia hori? Zein ezaugarri ditu?

Sekuentzia didaktikoa ikasleen a-niztasunari erantzuteko marko meto-



dologiko aproposa da, ikasleen ezaugarrietan oinarritzen baita, eta ez programan. Abiapuntu modura ikasleen hasierako egoera hartzen du, eta garatutako lanabesei esker, irakaskuntza ikasle bakoitzaren mailara egokitzea ahalbidetzen du. Sekuentzia didaktikoaren garapenean ikasleak badaki momentu oro zer egiten ari den eta zertarako. Badaki entziklopedia batean argitaratzeko moduko azalpenezko testua idatzi behar duela. Helburudun ariketak dira.

Sekuentzia didaktikoa gelan bertan landu da irakaslearekin, ez da gelatik kanpo egiten den esperimentazio saio bat. Irakasleari sekuentzia esplikatu zitzaion eta berak aplikatu du gelan. Hilabete eta erdi horretan, ikasle horiek, ohiko programa jarraitu beharrean, nik prestatutako sekuentzia jarraitu dute.

Zer elementu lantzen dira sekuentzia didaktikoan eta zein modutara?

Hainbat arlo lantzen dira: testuaren antolaketa (sarrera, testuaren muinaren garapena eta bukaera), informazio kantitatea, testuaren kohesioa eta testua ulertzeko mekanismoak.

Lan batzuk banaka egitekoak dira, beste batzuk talde txikitik eta beste batzuk handitan.

Hasieran aipatu dituzun testu kanonikoetan eta ikasleen testuetan antzekotasunik ikusi al duzu?

Bai, antzekotasun batzuk aurkitu ditut eta desberdintasunak ere dezentete. Antzekotasunen artean oso kurio-soa da, baina dirudienez euskarak, frantsesak eta gaztelaniak zenbaite-tan ez dituzte unitate linguistiko ber-dinak erabiltzen ideiak berreskura-tzeko. Frantsesak eta gaztelaniak ize-nordainak gehiago erabiltzen dituzte, eta euskarak, aldiz, izenak. Horren zergatia nahiko garbi dagoela uste dut: euskarak generorik markatzen ez duenez, informazio hori galdu egiten da, eta izenarekin berreskuratu behar da. Adibidez, hau, hori, hura, esaten dugu euskaraz eta esto/a, eso/a, a-quello/a gaztelaniaz.

Desberdintasunen artean zein aipatuko zenituzke?

Anaforen kateak, adibidez. Testu kanonikoetan berreskurapenak askoz ere konplexuagoak dira. Bi edo hiru kate anaforiko daude aldi berean.

Ikasleen testuetan kate anaforikoak askoz ere sinpleagoak dira, ez dira hain luzeak eta hain ugariak.

Horrek zer esan nahi du?

Testu kanonikoetan barne loturak askoz ere sendoagoak direla. Ikasle-en idatzietan gaien arteko loturak ez dira hain sendoak eta batzuetan ez da-go loturarik. Testuen irudietan argi i-kusten da hori (ikus irudiak).

Antzekotasun eta desberdintasunez gain, ikasleen testuetan errakuntzarik aurkitu al duzu? Hala bada, zein?

Testuen kohesioan agertzen diren errakuntzak aztertu ditut, eta ondorioak oso interesgarriak dira didaktikarako. Nik lau errakuntza mota aztertu eta ikusi ditut:

- Ez denean ulertzen zertaz ari den. Zerbaitetaz hitz egiten ari dira, baina ez dute gai hori aurkeztu. "Kontserbatan sartu eta pisatzeko ordua heldu da. Oso garrantzitsua da haizea ez sar-tzea eta horretarako tapa hermetikoki itxi behar da". Haizeak non ez du sar-tu behar? Ez da aipatu ontzia. Bu-ruan gelditu zaio.



- Testuan au-retik aipatutako

zerbait aipatzen du, baina bi edo hiru gauza izan daitezke. "Lehen esanda-koa" idazten du, baina agian lau gauza esan ditu lehen. Ez dakigu zeri egiten dion erreferentzia.

- Komunztadura arazoa. Adibidez, "Lehenengo mertxikak batzen dira. Gero fabrikaraino garraiatu ahalizate-ko. Ondoren ikustatu eta itxaron be-har bada hitzetan kontzerbatzen da. Geroxeago garbitu egiten dira (...)". Pluraletik generikora eta berriro plu-ralera aldatzen dute.

- Lexikoa. "Melokotoia" esaten du-te eta gero "Barazki hau". Bigarrenak ez du lehenengoa berreskuratzen.

Errakuntza horiek berdin ager-tzen al dira talde esperimentalean e-ta kontrol taldean?



Euskara-
ren
didaktikari
izugarrizko
argitasuna
emango lioke
hainbat
testuren
funtzionamen-
dua jakingo
bagenu

Aurretetan, ikastola bereko eta maila bereko ikasleak izan arren, kontrol taldea esperimental baina hobea zen. Baina gero, sekuentzia didaktikoa landu ondoren, talde esperimentaleko haurrek hobetu egin dituzte euren idazlanak, eta kontrol taldekoek ez. Kontrol taldeko ikasleen ondortuetan informazio kantitatea gehitu egin da, baina hobetu gabeko alderdi asko gelditu dira: testuaren antolaketa (testu faseen banaketa eta azpitoluen egokitasuna testu faseari), izen kohesioa (gaiaren aurkezpena eta berreskurapena), testuaren justifikazioa, hartzaileari egokitzeko gaitasuna (adibideak, enumerazioak eta abar), komunztadura, lexikoa eta abar.

Beraz, sekuentzia didaktikoan erakuntza horiek landu ondoren, hobekuntza nabarmenak egin dituztela argi dago. Gauza hauek landuz gero, konpondu edo zuzendu egiten direla ikusten da. Konturatzen ez bagara ere, kohesioak izugarrizko garrantzia du. Izan ere, kohesio faltak ulermena oztopatzen du. Komunztadura ez egoteak, lexikoa ez menperatzeak edo aurrekaririk ez egoteak zer nolako ondorioak ditu? Nahiko handiak, esaten ari garen hori oztopatzen baitu, komunikazioa, azken batean.

Hori ahozko komunikazioan ere ez al da gertatzen?

Bai, baina ahozkoan konpon daiteke, igorleak eta hartzaileak negozia dezaketelako euren artean. "Zertaz ari zara?" galde diezaiokezu igorleari.

Baina idatzitakoan ez dago konponbiderik. Hori da bere ezaugarrietako bat, hain zuzen ere, bertan egon behar dutela ulertzeko behar diren elementu eta lotura guztiek.

Dena dela, ulertzeko zaila den mekanismoa da. Oso ohituta gaude perpaus mailako gauzak aztertzen, eta zaila egiten zaigu perpausaz gaindiko komunztadura lortzea. Baina hori ere landu egin behar da unitate moduan testuak hartuta. Ikasleak 6. mailan gai dira fenomeno horiek ulertzeko. Adin horretan oso gai dira perpausetik testurako jauzia egiteko.

Ikerketa lan honen ondoren, zein dira tesian azpimarratu dituzun ondorio nagusienak?

Hasteko, esan behar dut azalpenezko testuaren alderdi bat aztertu dudala, eta ondorioak alderdi horri lotutakoak direla, hau da, didaktika arlokoak.

Hori esanda, lehen ondorio bezala aipatuko nuke oso garrantzitsua dela



hizkuntzak nola funtzionatzen duen jakitea. Hau da, irakatsi egin behar dugu testu mota horrek, genero horrek, nola funtzionatzen duen jakitea oso garrantzitsua dela. Jakin egin behar dugu testuetan zer lotura dauden eta lotura horiek behar bezala egoteko arau batzuk jarraitu behar direla. Loturak egon behar dute, eta testuan esplizitatua, gainera.

Horretarako, eta bigarren ondorio bezala, ikasleek aurretik zer dakiten jakin behar dute irakasleek: zer-nolako oztopoak dituzten, zer errakuntza egiten dituzten adin horretan eta abar.

Hirugarrenik, sekuentzia didaktikoaren funtzionamendua jakin behar dugu, behar den bezala erabiltzeko eta emaitzak lortzeko.

Hiru gauza horiek baldin badakizkigu, ikasleek dituzten hutsuneak landu ditzakegu.

Didaktika aldetik beste ondorio garrantzitsu bat zera da: irakasleek ahalegin ikaragarririk egin gabe jakin dezaketela ikasleak aurretik nola dauden, eta sekuentzia didaktikoaren ostean zenbat ikasi eta hobetu duten ikus dezaketela. Izan ere, idazketan askotan daukagun hutsunea da aurreko neurketa edo behaketa hori ez dugula egiten. Aurretik nola zeuden ez baldin badakigu, ondoren ez dakigu zer hobetu duten. Beraz, sekuentzia didaktiko honek erakusten duenez, badaude zenbait adierazle aurretik nola zeuden jakiteko eta zer ikasi duten jakiteko. Horrek sekulako zurratsuna eman diezaioke irakasleari.

Euskarari dagokionez, horrelako azterketak egiten jarraitu behar dugula uste dut. Euskararen didaktikari izugarritzko argitasuna emango lioke hainbat testuren funtzionamendua jakingo bagenu.

Hizkuntza idatzian, eta hizkuntzan oro har, aurrerapenak oso-oso geldoak badira ere, aurretestua kontrolatzen baldin badugu, ondotestuan aurrerapenak ondo ikusiko direla esan dezakegu. Gertatzen dena da aurretestua ez dela egiten, ez dakigu



zein den abiapuntua, eta beraz, ez dakigu zer ikasi duten.

Talde esperimentaleko ikasleek ikasi dutenak ba al du islarik gainontzeko lanetan? Hau da, ikasitakoa aplikatzen al dute?

Nik hori ezin dezaket kontrolatu. Aurretestutik ondotestura zer-nolako aldaketak egin diren esan dezaket, baina horren aplikazioaren jarraipenik ez dut egin. Eta egia esan, jarraipena egin beharko genuke.

Aurrera begira, ikerketa honekin jarraitzeko, zer ikerlerro proposatzen duzu?

Alde batetik euskararen funtzionamendua hobeto ezagutzeko ikerlerroak daude, eta bestetik euskararen irakaskuntza/ikaskuntzaren mekanismoak hobeto ezagutzeko ikerlerroak.

Bigarrenari dagokionez, ikerketa honetan azalpenezko testuarekin egin den azterketa beste adinetako ikasleei aplikatu dakieke, eta halaber, testu genero ezberdinetan egin ere bai. Modu horretara, euskararen eskurapenari buruzko datuak izango genituzke eta hizkuntzaren curriculumean edukiak sekuentziatzeko zenbait argibide ere eskuratuko genituzke.

Horrez gain, gauza askoren artean interesgarria ikusten dut irakasleek ikasleekin harremanetan jartzeko erabiltzen duen modua: irakaslearen berbaldia, nola interakzionatzen duen ikasleekin, zer eta nola egiten duen ikasleek aurrera egin dezaten ikaskuntzan eta abar.

Ikerketa
honetan
azalpenezko
testuarekin
egin den
azterketa
beste
adinetako
ikasleei aplika
dakieke, eta
halaber, testu
genero
ezberdinetan
egin ere
bai



Ameriketako euskal ikastola

Boiseko ikastola hazten ari da

Izarne Garmendia

Boiseko ikastolako irakaslea



Euskal Herriko mugetatik at bada ikastola bat, EEBBetako Idaho estatuko Boise herrian, hain zuzen ere. 1998an sortu zen hango ikastola. Azken bi ikasturte hauetan Izarne Garmendia irurarra da bertako irakaslea, eta hango kontuak dakarzkigu.

Oraintxe sentitzen dudana ezin dut oso ondo esplikatu. Ikastolako haur hauei begira jartzen naizen bakoitzean begiak eta belarriak erne-erne jartzen zaizkit beraien hizketa entzunda... Zaila egiten zait, hiru zentimetro lodiko liburu bat idazten hasita ere, hemengo euskaldunen nondik-norakoa esplikatzeari, hau ulertzeko onena zuzenean berariei entzutea baita!!!

Prestal zeundeke Boiseko ikastolara irakasle gisa joateko? Begia pixka bat okerrarazi zidan unibertsitateko lagun batek galdera hori luzatu zidanenean orain urte eta erdi gutxi gorabehera. Egia aitortzekotan, banuen amerikar euskaldunen berriren bat edo beste telebistan eta irratan entzunda, baina ez nuen Idaho estatuaren hiriburua den Boiseko ikastolari buruzko ezagutza handirik.

Gertatu ohi den bezala, arreta berezia jarri nion kasu honetan pertsonalki eragiten zidan amerikar euskaldun faktoreari, eta nolabait arrotza zitzaidan Euskal Herri txiki honetara hurbiltzen joan nintzen pixkanaka-pixkanaka. Hala, Euskal Herriko Boisea etortzea erabaki nuen.

Behin iparramerikar gobernuaren atean zeharkatuta (nahiko zaila baita langile gisa herrialde honetara etortzea) konturatzerako Boisen nintzen,

nire burua benetako pelikula baten barruan ikusten nuen: benetako cow-boyak txapel handiekin, Chevrolet mendiko auto handiak nonahi, basamortuko paisaia alde batetik eta mendi tontorrrak bestetik...

Eskuak igurtzi nituen eta bizimodu berri honen ikasle izateko prestatu nintzen irakasle lanean aritzeaz gain.

Boise EEBBetako Idaho estatuko hiriburua da. 168.000 biztanle inguru ditu, baina herri kutsu handia du, bere lasaitasuna dela-eta eta erdigunea txikia delako. Batzuek munduko azken muturra dela diote, inguruan mendiak, desertuak eta industrializatu gabeko herri txikiak baititu. Lehen euskaldunak 1860. urte inguruan etorri ziren, urrearen sukarrari jarraiki. Beraien asmoa diru pixka bat lortu eta bueltan Euskal Herriera itzultzea zen. Baina ez zen preseski hori izan denek egin zutena. Asko bertan gelditu ziren, eta euskal komunitatea gero eta handiagoa egin zen inguruotan. Arrazoi politikoak zirela-eta ere jende asko etorri zen Euskal Herriko, hango egoera latzak bultzaturik, eta batez ere Gernikako bonbardaketaren ondoren. Urre bilatzaile, artzain edo ostalari gisa familia osoak etortzen ziren. Gaur egun EEBBetako euskal komunitaterik handiena dugu Boisekoa, eta geroa seriozki lantzen ari

dira. Horren adibide dugu, besteak beste, ikastola. Etortzen diren haur gehienak hona etorritako euskaldunen hirugarren edo laugarren belaunaldi-koak dira.

Boiseko nire lehen kontaktua Bieter-Lete familia izan zen. Beraiek izan ziren 1998an Boiseko ikastolaren sorrerako eragile nagusietakoak beste guraso talde batekin batera. Nere Lete errenteriarra da eta bere senar Chris Bieter amerikar euskalduna, hemen jaioa eta euskara modu dotorean egiten duena, bertako beste askok legez. Hiru seme-alaba dituzte: Maddalen, Iosu eta Andoni. Azken hau oraindik txiki samarra da kontu kontari aritzeko, baina beste bien ama hizkuntza, etxeko hizkuntza, euskara da, eta ederki asko menderatzen dute.

Hona iritsi eta lehenengo astean beraiengandik jaso nuen laguntza eta goxotasuna urte guztian zehar mantendu da gainerako familien eskutik ere; horixe baita ikastola honen ardatza, guraso hauen etengabeko lana; mantenuan, proposamenetan, aurrerakuntzan... Ikastola bera familia txiki bat bihurtu dute. Ondorengo belaunaldiak euskara galtzeko zuen arriskua ikusita hasi ziren guraso horiek Boiseko ikastola sortzen.

Boiseko ikastolaren sorrera-ko urratsak

Ikastola berria sortzeko ilusio, gogo, saiakera eta plangintzeekin denbora zermaten hemengo zenbait familiak: han eta hemen galdetu, handik informazioa jaso, beste saiakera hura egin...

Lehen arazoetako bat egoitza zen. Non jarri ikastola berria? Hasieran Euskal Museoak duen gela bat izan zitekeela pentsatu zuten, baina amerikar legeak haurtzaindegi bat osatzeko eskatzen dituen arauak ez zituen betetzen eraikuntza hark. Hortaz, beste toki baten bila hasi ziren. Han-hemenka galdetuz eta galdetuz, Boiseko Unibertsitatearen ondo-ondoan dagoen San Paul Elizan bi gela alokatzeko aukera topatu zuten eta han-txe hasi ziren lanean gelak txukunduz.

Gaur egun toki berean jarraitzen dugu eta oso toki egokia da. Ditugun hi-

ru gelak oso erosoak dira: gela nagusia (biribilean esertzen gara, paperezko lanak egiten ditugu, ordenagailua daukagu...), jolas-toki/logela eta gela handia (kirola eta jokoak egiteko, eta kanpoan hotza egiten duenean jolastoki bihurtzen dugu). Ezin gehiago eskatu. Gero eta haur gehiago etortzen ari dira, eta jada beste egoitzaren bat bilatzen hasi gara, oraingo gelak txiki samarrak gertzen ari baitira. Egoitza propioa izatearen pribilegioen bila gabiltza.

Egoitza aurkitu ostean, ikastola abian jartzeko, gurasoek aparteko diru bat jarri zuten, eta gero Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten ikastolak. Laguntza horrekin Euskal Herritik etorri zen irakaslearen soldata ordaintzen zen. Geroztik urtero jasotzen dugu Eusko Jaurlaritzaren laguntza. Gero eta haur gehiago izanik (24 oraintxe), diru sarrera ere handixeagoa da.

Hala ere, laguntza guztia Boiseko Euskal Museoara doa lehenik, erakunde horren menpe baikaude. Museoa da, ikastolako zuzendariarekin batera, diru sarrerak eta irteerak kudeatzen dituen.

Gerora begira, erronka nagusia instituzio erabat independentea izatea da, eta ziur nago orain arteko pausoak ikusita, gutxi barru lortuko dutela!

Funtzionamendu orokorra eta familien ezaugarriak

Jadanik errealitate den proiektu aitzindari honetan etengabeko aldaketa txikiak jazo dira 1998an sortu zenetik, eta beti aurrera begira eta aurrerakuntza handiak eginez arlo guztietan (baliabide gehiago, haur gehiago, emaitzak hizkuntza aldetik, ekintza anitzak...).

Momentu honetan ikastolak 17 haur ditu gaztetxoenen taldean (2, 3, 4 eta 5 urtekoak), eta 7 helduen taldean (5 eta 6 urtekoak). Beraz, denetara 24 haur ditugu.



Haur gehienak astean hiru edo bost aldiz etortzen dira. Horietatik 11k euskaraz hitz egiten duen guraso bat daukate, zazpi euskal arbasoak dituzte baina etxean ez dute euskara entzuten, eta lau ez dira euskal jatorrikoak. Azken kasu horren eredu dugu Dave Eichler guraso. Iowako Unibertsitatean ikasle zela ikasi zuen euskara Nere Leterekin, eta geroztik lantzen jarraitu du. Euskal Herrira ere joana da, eta orain bere seme-alabei euskaraz egiten die etxean.

Orokorrean maila ertaineko edo altuko familietan hezten ari diren haurrak dira.

Gaztetxoek goizez jasotzen dute beraien ikasgaia, eta helduak, bitartean, "kinder garden" deitzen dioten ingeles eskoletara joaten dira (5-6 urterekin derrigorrezko eskola dena) eta arratsaldez ikastolara etortzen dira.

Frogaturik dago edozein haurren irakaskuntzan oso garrantzitsua dela bere **ingurunea nolakoa den** aztertzea, gero berarentzat esanguratsuak izango diren ekimenak antolatzeko. Ikastolaren kasuan, beraz, ezin du Euskal Herri-

ko ikastolak bezalakoa izan. Hemengo ohituretara eta legetara egokitu beharra dago, eta horrek moldaketa lana eskatzen dio irakasleari. Adibidez, nahiz eta izaera irekia duen jendea egon hiri honetan eta Estatu Batuetako kriminalitate gutxien duen tokietako bat izan, haurrak helduren baten kontrolpean daude beti, eta ez dute Euskal Herriko jolastokietan jolasteko dagoen askatasun hori, ez neurri berean behintzat. Ohitura handiagoa dago elkarren etxetara jolastera joateko. Orokorrean jendeak bizitza indibidualizatuagoa dauka eta harremanak oso zainduak izaten dira, familia artekoak bereziki. Gauzak horrela, irakasle bezala arrazoiren bategatik momentu baterako gelatik irten behar badut, atea giltzaz itxita utzi behar dut.

Ikastolako pertsonala

“Ikastola board” edo zuzendaritza izeneko taldeak zuzentzen du gure funtzionamendu orokorra, non erabaki guztiak proposatu eta onartuak izaten diren. Talde horretako partaideak gurasoak eta irakaslea dira. Pertsonalki gozesten dudana talde osatua osatzen dute; psikologoa, ingeniaria, informatikoa, ekonomian adituak, epaileak... denetik pixka bat dago tartean. Beraren lana da ikastola honen arrakastaren ardatzetako bat; nola ez, beti umore tarteko!!

Zuzendaria **Elena Cook** da, Nevada jaioa eta txikitatik bere guraso euskaldunengandik euskaraz ikasia. Bere aita Ispasterrekoa da eta ama, berriz, Lekeitiokoa. Zuzendari lanez gain, irakasleri ere laguntzen dio behar duenean, eta partaide guztien gisa, denetik pixka bat egitea tokatzen zaio. Berari esker konfiantzazko giroa sumatzen da, eta hartu-eman eta ekintza gehien bateratzaile nagusia da. Zerbait behar izanez gero, Elenari galdetu.

Lehen irakaslea Itziar Apaolaza lasarte-oriarra izan zen, zeinak modu ezin hobean ekin zion bere lanari. Hasiera guztiak bezala, ez zen hain samurra izan, zerotik hasi behar izan baitzuen; material guztia Euskal Herriatik ekarri e-



ta hutsik zeuden bi gela antolatu behar izan zituen. Sei haurrekin hasi zen.

Behin errutina eta erritmoa hartzeak dakarrena eta gero, nik 2000ko otsailan hartu nuen haren ordezkia. Itziarren lanaren emaitzak ikusi ahal izan nituen, haurren ulermen eta hizketa mailan, batez ere. Lanean aurrera jarraitzeko motibagarri ezin hobea! Nola zitekeen Euskal Herriatik hain urrun egon, eta era berean, hain gertu sentitzea?

Nirekin batera **Geneva Ayarra** boisetar gaztea dabil. Laguntzaile gisa etortzen da goizez, eta arratsaldean haurren arduraren hartzen du hainbat arte proiektu landuz. Aita euskalduna du, “Gaztemundu” programan parte hartutakoa da, eta sekulako azkartasunez ari da euskara ikasten, haurrekin gero eta gehiago erabiltzen duelarik.

Metodologia

Itziar Apaolaza irakasleak proposatu eta aurrera eramandako metodologia egokia zela iruditu zitzaidan, eta orain arte zenbait gauzari bere horretan eutsi diegu. Hala ere, pixkanaka aldaketa txikiak eta berrikuntzak sartzen joan gara.

OCDak eskaintzen dituen metodologia eta baliabideetatik abiatuak, mota honetako ikastetxeak eskatzen dituen beharretara moldatzen saiatu naiz beharrezko aldaketak eginez; ingurune soziologikoari dagozkionak eta linguistikoak, batez ere, hemengo lehenengo hizkuntza ingelesa baita, noski.

Nire ustez, haurrek hizkuntza bat ikasteko modurik onena konturatu gabeko ikastea da, hau da, ondo pasaz. Ho-

rretarako, haurrei zuzenean eragiten dieten ekintzak burutzen ahalegintzen gara. Helburu horri eutsiz, askotan beraien gustukoak diren hemengo joko, hitz-joko eta abestiak hartzen ditut eta euskarara itzultzen ditut, edo hitza asmatu ere bai, askotan. Aurretik ezagutzen duten zerbait oinarri bezala hartuz azkarrago ikasten dute. Hona hemen adibide bat:

“O Mc Donalds had a farm ia ia o!!
and in that farm he had a pig ia ia o!!”
abestiarekin

“Ikastolan gaude gu, ia ia o!!
Ondo pasatzen dugu, ia ia o!!
Hemen behi bat daukagu, ia ia o!!
Behia hemen behia hor
Eta behiak mu, behiak mu,
behiak mu ta mu ta mu!!!
Ikastolan gaude gu, ia ia o!!”

Asmaketa eta itzulpen ugari egiten ari naizela ezin ukatuko dut, baina aktibitateak bi proiektu nagusitatik jasotzen eta antolatzen ditut normalean: Ur-txintxa eta Haurtxoa, eta batez ere lehenengotik. Haur helduenekin, berriz, antzerkia, kontakizunak, ipuinak, eskulanak eta irakurketa idazketa lantzen ditugu gehienbat, euskaraz egiteko e-dozein aitzakia baitugu baliagarri.

Hainbat faktorek irakaskuntza nahiko selektiboa erabiltzea bultzatzen dute:

- Haur guztiak ez dira egunero etortzen, eta arrazoi horrexegatik, lantzen ditugun **arloak** astero egunez aldatzen ditugu, Itziarrek martxan jarri zuen sistemari eutsiz: arloak matematika, idazketa, arte hezkuntza, (musika eta plasti-

ka adierazpenak), gorputz heziketa eta euskara dira. Horrela, matematika astelehen batean egin badugu, hurrengo astean asteartean izango da. Sistema horrek haur guztiek denetik ikasteko aukera ematen du. Zeharlerroak ere, hitzak dioen bezala, zeharka erakusten ditugu noiznahi.

- Adin ezberdineko haurrak ditugunez, batzuetan txokoen sistema erabiltzen dugu, eta besteetan denak elkarrekin egoten dira. Horrek material anitza aukeratzea dakar. Horregatik, hainbat metodotatik egokiena iruditzen zaidana hartu eta horixe lantzen dut, bestela adin guztiei dagokiena irakasteko denborarik ez bailitzateke egongo. Normalean gai bat eta hiztegi konkretu bat aukeratu, eta horren inguruan antolatzen dut irakasgaia.

Erabiltzen dugun hizkuntza nagusia euskara da eta irakasgaia osoki euskaraz ematen ahalegintzen gara. Jarra kontua dela-eta, esku hartu behar denean hitz egiten dugu ingelesez. Kasu horietan, lehendabizi euskaraz zuzentzen gatzazkie eta gero ingelesez, ondo uler dezaten. Dena dela, horrelako egoeretan zuzendariak eta beste irakasleak hartzen dute parte, nire esku hartzea ahalik eta euskaldunena izan dadin. Ohitu daitezela "andereñoa" euskararekin erlazionatzen. Horretarako, antzerkia, marrazkiak, txotxongilokak eta hizkuntza erraz eta ulergarria erabiltzen ahalegintzen gara.

Hizkuntza maila eta ikaske-ta prozesua

Hasieran, ni etorri nintzenean, oinarrizko hitz batzuk menderatuak zizuten, bereziki beraien beharretara zuzenduak daudenak. Adibidez: "ireki, mesedez", "lotu, mesedez", "eserita", "isilik", "jaso"...

Ikasgaiekin loturiko hitzak ere entzun zitezkeen: "zenbakiak", "txakurra", "txokolatea", "eskuak"...

Niretzat bitxiena nik "euskinglish" deitzen diodan Boiseko euskalkiaren ezagutza izan zen. Oraindik ere ederki gozatzen dut hizketa berezi hau en-

tzunda. Amerikar gizartearekin kontaktu zuzenean egonik, naturalki gertatzen den fenomeno da berau. Hego Euskal Herrian latinetik eta gaztelaniatik hitzak hartzen ditugun bezala, eta iparraldean frantses kutsua duten bezala, hemen ingelesa da euskararekin erabateko interferentziak egiten ari dena, batez ere bizkaierarekin. Izan ere, hanbat arrazoi rengatik, haurrek eta Boiseko euskal hiztun askok "euskinglish" hori hitz egiten dute. **Haur hasiberrien artean** hone-lakoak entzuten dira:

- "Can wejolastu?" (jolas dezakegu?)
- "Let's go komunera" (goazen komunera)
- "Ikusi what I made" (ikusi zer egin dudan)

Jende helduaren artean, berriz, honelakoak entzun ohi dira:

- "Zer da hori? Hori forka da" (hori sardea da)
- "Karrua hartu jaiueixetik eta estorrera joan naiz grozerixek erostera" (autoa hartu autobidetik eta dendara joan naiz barazkiak erostera)
- "Buxixek moztera noia" (sasiak moztera noia)
- "Toixekin jolastu" (jostailuekin jolastu)

Honela euskal gramatikako egitura aplikatzen dute ingelesean, beraien hiztegia handituz doalarik.

Egoera berrira egokitzen gindozan heinean, pixkanaka aurrerapen

gehiago egin zituzten. **Esaldi osoak** entzun zitezkeen, agian aditzik gabe edo irakaslearen laguntza txiki batekin: "nik ez jolastu hemen", "ni kanpora joan"...

Gaur egun, berriz, ikastolako zaharrenak beraien artean euskaraz jolasteko gai dira; kontakizunak eta deskribapenak egiten dituzte, eta neurri batean, bigarren hizkuntza bezala erabiltzen dute euskara, beraien eremuan, noski. Egunetik egunera euskara osatuagoa eta zuzenagoa ikasten ari dira. Adibidez:

- "Nik dena jan dezu"
- "Nik hori ez badakit"
- "Mikelekez hitz egiten dute euskeraz"
- "Katua etorri behera eta amumak esan det..."

Haurrak bizkor ari dira ikasten, hortaz, eta hizkuntza ulertu ez ezik erabiltzeraino iritsi dira. Baina onena da guraso eta senitartekoei ere erakusten ari zaizkiela. Horrez gain, ikasteko duten gogoia komunitatean zabaltzen ari dira. Hori baino zer hoberik eska dezakegu?

Haurrek etxera eramateko zenbait material ere sortu ditugu gurasoek haurrekin euskara landu dezaten; hala nola, gelan landuriko hitzen esanahia eta ahoskera erakusten duen hiztegia eta abestiak dituzten kaseteak.

Ikastolatik at, euskararen presentzia

Boiseko jendea orokorrean oso atsegina eta esker onekoa da, oso maita-



tua sentitu naiz etorri nintzenetik. Dena dela, areto berezietara edo taldeetara gerturatu behar da benetan beraiengana iristeko, kanpoko talde aktibitateak ez baitira euskaldunenak bezain ugariak.

Komunitatea euskalduntzeko saiakeran, parte-hartze zuzena izateko aukera izan dut zorionez, eta Boiseko Euskal Museoaren bidez helduentzako **euskarazko klaseak** antolatu ditugu. Hiru gela ditugu denetara: hasiberriak, erdiko maila eta goiko maila. Orotara 40 bat ikasle dira.

Amaia Biain eta Jill Aldape estatubatuarrek Lazkaoko barnetegian euskaraz ikasiriko bi neska jator dira. Lehenengo Boisekoa da, eta bigarrena kaliforniarra. Oso euskara maila ona dute. Biak irakasleak dira nirekin batera klase horietan.

Zer lotura duten euskarako klase horiek eta ikastolak? Bada, haurrak euskaraz mintzatzen ikusita, gurasoak ere euskaraz ikasten hasi dira seme-alabekin batera, kasu batean baino gehiagotan euskal arbasorik gabeko jendea delarik. Hori benetan azpimarratzekoa iruditzen zait, oraindik ez bainaiz ohitu hainbat tokitako jendeak Euskal Herriri hartzen dion atxikimendua ikusteaz. Kultura konkretu baten partaide izatearen ametsaren ondorioa da hori, nire ustez. Iparramerikar gehienek europar arbasoak dituzte, toki ezberdinetakoak, eta ez dute identitate konkreturik. Euskaldunek Boisen indar handia hartu dute eta identitate horren bila etortzen dira.

Klaseetan oso giro ona daukagu. Kurtso amaieran eta Gabonetan afariak egiten ditugu, eta oso klase "fanixek" dira. Dagoeneko bizkaitar hiztunak dira batzuk, baina batua nola idatzi eta irakurri ikastera etortzen dira. Animo!!!

Aipatu dugu, beraz, ikastolaren interesa eta ilusioa nola ari den gehitzen, eta horren eragina nabaria da Boiseko Euskal Elkarteetan (Euskal Etxea, Boiseko Euskal Museoa eta Boiseko Gazteak, 14 urtetik beherako hurrei dantza irakasten dien taldea...).

Haur hauek **bi gizarte mota ezberdin** ezagutzeko aukera dutela esatera

ausartuko naiz. Gizarte amerikarraz gain, euskal komunitatearen inguruan antolaturiko ekimenetan hortxe egoten dira begiak zabal-zabalik dituztelarik: afariak, musika entzunaldiak eta dantzaldiak, pilota partiduak...

Ekitaldi horien artean bereziki **haurrei zuzenduriko astearteroko hitzordua** dago. Abarkak jantzi eta 160ren bat haur euskal dantzak eta abestiak ikasteko elkartzen dira asteartero, hainbat aurretan adinaren arabera banatzen direlarik. Saio horietan ikastolako haurren erantzuna nabarmendu egiten da beste haurren aldean parte-hartzaileagoak direlako, hizkuntza ezagutzen dutelako eta aktibitate mota honetara ohituak daudelako. Polita izaten da 3 urteko haurrak izkinan ikustea besteen moduan abarkak jantzita eta lehen dantza saiakerak egiten, "ni noiz joango naiz" esanez.

Urtean zehar zenbait alditan jendarean dantza egiteko aukera izaten dute: gobernuko jendeari harrera moduan saiotxoren bat, omenaldiren batean, bereziki antolaturiko ekitaldietan...

Dantzaldia aipatu dudanez, **Gaupasa euskal musika taldea** aipatzea oso bidezkoa deritzot. Talde horretan trikitixa jotzeko aukera zoragarria izan dut. Gainera, euskal musika eta beste hainbat tokitako musika zuzenean entzuteko aukera izan dut: trikitixa, gitara, baxua, txistua, txirula, flauta, mandolina, panderoa eta bateria, denak batera.

Badira erabateko euskal kutsua duten jantoki eta taberna pare bat Idahon. Hauetan erraztopa daiteke "gorri bat atera" esanez dagoen gizona, koadroko alkandorarekin eta ardoa bezain muxu gorriekin, eta agian euskal kantaren bat ozenki-ozenki abesten... Inguru hauetan ezin zara libratu; joaten zaren tokira joaten zarela, euskaldunen bat topatu duzu, edo frontoiak, euskal taldeen izenak, edota euskaldunen bat ezagutzen duen norbait begiak dir-dir dituztelarik, gaiaren interesgarritasunagatik.

Gerora begira zer?

Boiseko ikastola EEBBko ikastola bakarra da. Helbururik nagusia ho-

nek guztiak bizirik jarrai dezan gogorlan egitea da, haurren motibazio eta sentipenei modu funtzionalean eutsiz. Haur gazteak bildu eta helduei erronka aproposa eskaini nahi zaie.

Ikastolako zenbait sendi Euskal Herrira joan ohi dira beren kulturaren sustarriak non sortu diren ikustera. Beren seme-alabak Euskal Herriko etxekoekin eta lagunekin ulertzeko gai direla ikustean harriturik eta pozez gainezka itzultzen dira. Haurrek, aldi berean, euskara beraiekin lotura duen familiakideen gizarte osoak erabiltzen duen hizkuntza dela ikusten dute. Ikastola sortu zenez geroztik, gure ikastolako bost sendi joan dira ozeanoaren beste aldeira, eta guztiak izan dute bertako zenbait ikastolatan ikasle bezala egunak edota hilabete osoa pasatzeko aukera.

Joan-etorri horien arrakasta ikusirik, Orereta, Irura eta Anoetako ikastolako hurrekin harremanetan gaude. Aurrera begira, harreman horiek nola bidera daitezkeen aztertzen ari gara, euskaraz egiten duten haur bakarrak ez direla ohar daitezkeen, bai boisetarrak eta bai Euskal Herrikoak.

Gerora begira galdera ikur handi bat jar dezakegu gure ikastolaren aurrean. Haatik, gero eta haur gehiago datozela ikusita eta ikastolaren inguruan dagoen animoa eta lan giroa ikusita (oso praktikoa), luze iraungo duen konfiantza guztia daukat.

Orain dagoen proiektu nagusia nirekin dagoen Geneva irakasle laguntzailea Euskal Herrira joatea da. Horrela, euskara hobeto ikasteaz gain, euskal hezkuntza sistemaren nondik norakoak euskaraz ikasteko aukera izango du, eta denboraldi baterako Boiseko ikastolako irakasle izateko moduan egongo da. Modu horretara bertako pertsona bat izango da ikastolako irakasle. Izan ere, Euskal Herritik denbora luze-rako lanera etortzeko zailtasunak direla-eta, euskaldunentzat hemen gertatzeko aukera ez da urtebete baino askoz luzeagoa, eta haurrentzat ere ez da komenigarria urtero irakaslez aldatzea.

Kontu horiekin guztiekin, urruntasunaren adar zuzena den herriminen



presentzia ere ageri da zenbaitetan. Neure azalean sentitu dut, baina hori ezagutzeko ere etxetik atera behar omen da. Gurea estimatzeko besteena ezagutzea oso garrantzitsua dela uste dut, eta behin hori egin ondoren, **elkarren ulermenetik eta errespetutik** abiatuta, harremana arrakastatsua izan dadin saiatu behar dugu.

Ez nuke bukatu nahi guretzat oso lagungarriak eta erabakiorrak izan diren laguntzaileei **eskerrik asko** esan gabe, besteak beste: **hik hasi** aldizkaria, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldea, Ikastolen Elkarte, Irura, Anoeta eta Oretako ikastolak, EITB, eta hainbat jostailu eta material eskuratu dizkiguten guraso, lagun eta interesdun guztiak!!!

Kontuan izanik material berria erosteko euskal liburu dendarik ez dagoela Boisen, zenbait liburu eta jostailu zahar-kiurik geratzen ari dira. Norbaitek benetako amets honetan parte-hartu nahi izango balu, ongi etorria izango da, gure ateari zabalik daude iradokizun, proposamen eta kolaborazioetarako!!!!

Boiseko ikastolarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hementxe daude datu nagusiak:

Boiseko ikastola
University drive 1915
St Paul Student Catholic Center
Boise (83706)
Idaho USA

Tel: 001 208 3434234 (8 ordu guxtiago)

Faxa: 001 208 3432142

e-maila: basqmuseum@micron.net

Michelle eta Jose Luis:

“Semearentzat oso esperientzia zoragarria izan da, Euskal Herrikerik at hezkuntzan bere lehenengo pausoak euskaraz emateko aukera izan duelako”

Michelle Alzola Boisen jaiotako euskalduna da. Jose Luis euskaldunarekin ezkondua dago. Euskal Herrikeri bizi ziren eta Boiserara joan behar izan zuten. Han lau hilabete egin ondoren, berriro Euskal Herrikeri itzuli ziren. Boisen egon ziren hilabeteetan beraien seme Ander ikastolan ibili zen. Michellen ama Jeanne ikastolako lehen zuzendaria izan zen eta lan asko egin zuen guztia aurrera ateratzeko. Haren lanari esker iritsi da ikastola dagoen lekura, hein handi batean.

Elkarriketa honen bitartez Michelle, Jose Luis eta Anderrek Boiseko ikastolan izan zuten esperientzia eta bizipena ezagutu nahi izan dugu.

Nola eta noiztik jakin zenuten Boiseko ikastolaren berri?

Boiseko euskalduna izanik, nahiz eta orain Euskal Herrikeri bizi, zaila da Boiseko euskal munduan gertatzen denaren berri ez jakitea. Hasiera-hasieratik ezagutu genuen eta lagunak ditugun Boiseko guraso euskaldun batzuen ahaleginak itzelak izan ziren ikastola sortzearen. Beraiek eman zituzten urrats guztiak proiektua aurrera atera zedin. Ez genuen sekula pentsatu egun batean gure semea ere Boiseko ikastolako ikaslea izango zenik.

Gainera, ikastola sortu ondoren nire amak ere bere laguntza eta ahalmen guztia jarri zituen ikastolako lehen jardueretan eta berarentzat oso esperientzia zirraragarria izan zen.

Boiseko ikastolara joan aurretik Ander egon al zen Euskal Herrikeri edo EEBBetako beste ikastetxeren batean?

Ez. Biurte bete aurretik EEBBetara joan behar izan genuen nire amaren gaixotasuna zela-eta. Boiseko ikastola izan zen berarentzat lehenengoa.

“Familia bat dirudi ikastolak, harremanak oso estuak dira eta apartekoa iruditzen zaigu guraso eta irakasleen inplikazioa ikastolako bizitzan, benetan aipagarria”

Zein da haurren ama hizkuntza? Zein zen etxean gehien entzuten zuen hizkuntza ikastolara joan aurretik? Eta ondoren? Aitak zein hizkuntzatan hitz egiten dio?

Betidanik argi geneukan bakoitzak hizkuntza batean hitz egin behar genio-la. Nire ama hizkuntza ingelesa izanik nik ingelesez hitz egiten diot, eta aitak euskaraz. Beraz, horiek dira etxean entzuten dituen hizkuntzak. Gaur egun, Euskal Herrira bueltatu ondoren, gaztelaniaz ere apurka-apurka jabetzen ari da, kalean entzuten du-eta.

Zenbat denbora pasa zenuten Boiseko ikastolan? Zerekarri zuen zuentzat?

Lau hilabete pasa zituen Anderrek Boiseko ikastolan. Berarentzat oso esperientzia zoragarria izan da. Alde batetik, Euskal Herritik at hezkuntzan bere lehenengo pausoak euskaraz emateko aukera izan duelako, eta beste batetik, aita ez zegoeneko garai hartan euskaraz murgiltzeko paregabeko abagunea eskaini zitzaiolako.

Zer iruditzen zaizu ikastolaren antolaketa eta funtzionatzeko modua guraso ikuspuntutik? Nolako giroa sumatu zenuen, orokorrean, haurren, gurasoen eta irakasleen artean?

Familia bat dirudi ikastolak. Harremanak oso estuak dira, bai ikasleen artean sortzen direnak, bai guraso eta irakasleen artekoak ere. Apartekoa iruditzen zaigu guraso eta irakasleen inplikazioa ikastolako bizitzan, benetan aipagarria.

Horrez gain, euskarak eta euskal kulturak duengarrantzia ez ezik, Boiseko ikastolak eskaintzen dituen antolaketa eta zerbitzuak ere azpimarratzekoak dira: eskolaurre bezala, lan talde bezala eta abar.

Adin ezberdineko haurrak gela berean edukitzea eragozpena ala abantaila dela iruditzen zaizu? Anderren euskara mailan aurrerapenik sumatu al duzue? Zer eragin izan du Boiseko ikastolak haurrengan?

Gure kasuan, Ander taldeko txikiena izanik, abantailak besterik ez ditugu

ikusten, ez klaseko mailari eusteko gai izan zelako soilik, baizik eta adin ezberdineko haurren hartu-emanak garatzean haur bakoitzaren nortasuna ere garatzen delako aldi berean.

“Euskara aldetik ere, orain ikusten dugu zenbat ikasi zuen Boisean, hemen gauden bi hilabete hauetan euskaraz beldurrik gabe hitz egiten hasi delako”

Orain berriz Euskal Herrian zaude-telarik, zer moduz moldatu da Ander egoera berrira?

Primeran, arazorik gabe. Eskola berrian sartzerako ezaguna zuen talde giroa eta eguneroko zeregina ere ikasia zuen Boisean. Lagunak berriak dira, baina giroa antzekoa. Egia esateko, guk uste genuena baino arazo gutxiago izan zituen egoera berrira moldatzeko. Euskara aldetik ere, orain ikusten dugu zenbat ikasi zuen Boisean, bi hilabete hauetan Euskal Herrian euskaraz hitz egiten hasi delako beldurrik gabe. 3 urte bete aurretik benetan elebiduna dela esan genezake.

Nola ikusten duzue Boiseko ikastolaren geroa? Aurrera jarraitzeak merezi duela uste al duzue?

Argi daukagu ahalegin guztiak egin beharko direla ikastolaren geroa ziurtatzeko, eta gure aldetik prest gaude ahal dugun neurrian laguntzeko, guk Boisean izan dugun esperientzia polita beste haur askok ere izan dezaten datozen urteetan. Eta noski, gure hizkuntzak eta kulturak aurrera jarrai dezan, ez Euskal Herrian bakarrik, baizik eta Euskal Herria bezain euskalduna dugun Boisean ere bai.



Ekarpena

Irakurketa eta idazketaren inguruko hausnarketak (I)



LOURDES TABOADA: *“Teknologia Berriak hezkuntza zentzuarekin erabili behar dira, eta horretarako irizpide pedagogikoak eduki behar dira”*

Lourdes Taboada Galiziako Hezkuntza Kontseilaritzako Irakasleriaren Prestakuntza Zerbitzuko Haur Hezkuntzako aholkularia da. Hezkuntza idatzia eta Teknologia Berriak izenburuko hitzaldia eman zuen jardunaldietan. Teknologia Berrien eragina eta etorkizuna nola ikusten dituen azaldu digu.

Zure hitzaldian Teknologia Berriei buruz hitz egin diguzu. Nola lotuko zenituzke Teknologia horiek konstruktibismoarekin, hau da, nola aplikatuko zenituzke Teknologia Berriak konstruktibismoaren barnean?

Konstruktibismoak garrantzi handia ematen dio ikasten ari den subjektuari. Modu horretan, ikasten ari den haurra guztiz hartzen da kontuan. Gainera, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua haurraren zentratzen badugu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko beste elementu guztiak haurraren egokitzapenaren pean geratuko dira. Horrela, maila batean, irakurketa eta idazketako baliabide eta euskarriak ikaslearen kontsiderazioaren menpe geratuko dira, hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua haurraren zentratu behar da.

Hori guztia konstruktibismoarekin lotzeko, lehenik eta behin, ikasten ari den ikaslearen garrantzia hartu behar da kontuan. Ondorengo pausoa irakurri eta idazteko erabilera soziala duten materialak erabiltzearena izango da, hau da, benetako testuak eta eguneroko bizitzan irakurri eta idazteko erabiltzen diren material eta euskarriak maneiatuko dira. Beraz, ez da irakurtzeko metodo batsortzea, ezta modu zehatz batean irakurtzen irakastea ere, ikuspegi funtzional batetik irakurri eta idaztea baizik. Era honetara, benetako testuak (egunkariak, kontaketak, sukaldaritzako errezetak...) erabiltzen badira, benetako euskarriak erabili behar dira, hots, ez liburuak soilik, baita Teknologia Berriak (pantailak...) eta helduek irakurri eta idazteko erabiltzen dituzten baliabideak ere.

Teknologia Berriek bertigo apur bat ematen dizutela aipatu duzu hitzaldian. Zer adierazi nahi duzu baieztapen horrekin?

Bai, bertigo apur bat ematen dit berrietaz esaten dutenagatik, zeren badirudi informazioa prozesatzeko modu berri bat direla eta beste era batera alfabetatuak gauden helduok ez gaude ohituta horretara. Haurrak, aldiz, horretarako askoz ere abiletak dira. Ni orain arte liburu irakurtzen hasi eta bukatzen ohituta

Irakurketa eta idazketa aztergai izan ziren Ikastolen Elkarteak otsailean antolatutako VIII. Jardunaldietan. Hiru egunetan zehar Euskal Herri osoko 700 pertsona hurbildu ziren hitzaldietara. Hitzaldi teorikoak zein esperientzia praktikoak entzun eta eza-gutzeko aukera eman zuten jardunaldiek. Parte hartu zuten hiru hizlarirekin hizketalditxo bat egin genuen irakurketa eta idazketaren inguruan bakoitzak dituen ideiak ezagutu asmoz. Zenbaki honetan horietako baten ekarpena dakarkizuegu.

nengoen. Egun, ordea, egundoko pantailak ditugu hipertestu berriak irakurri ahal izateko, non tekla bati eman eta testua bera agertzen zaigun. Testua, gainera, irudi eta ahotsez lagundua doa eta horrek guztiak, irakurtzen ari denak berak bere ibilbide propioa egitea ahalbidetzen du eta ez idazlearena, liburu bat irakurtzen duzunean bezala, non idazlearen ibilbidea jarraitzen duzun.

Prozesu horrek kontrola ezin daitekenaren sentsazioa pizten dit. Beste batzuen aburuz, berriz, prozesua abantaila da, informazioa prozesatzeko daukagun moduarekin gehiago lotzen dela diote, hots, ez dela zerbait lineala, sare antzeko bat baizik.

Orain arte aipatzen ari garenaren araberan, Teknologia Berriak geroz eta gehiago erabiltzen dira. Ikasle asko dagoeneko ordenagailua erabiltzen ikasita datoz eskolara. Nola ikusten duzu prozesu hori gerora begira? Haurrei irakurtzen eta idazten ordenagailu irakatsiko zaie edota lapitza erabiltzen jarraituko da? Uste duzu horrekin guztiarekin "liburuaren heriotza" iritsiko dela?

Ez, nire ustez ez gara "liburuaren heriotzera" iritsiko, zeren liburuak ere teknologia oso perfektua da, eta gainera, urte askoren ondoren jasotzea lortu ahal izan dugun zerbait da. Horrez gain, liburuak eroso eta praktikoa da, merkea, ez du pilen beharrik eta abar. Liburuak bere abantailak ere baditu bitarteko eta objektu bezala, eta teknikoki hitz eginda, oso perfektua da.

Guk, irakasleok, badakigu eta onartu behar dugu ikaslea eskolara etortzean ezagutza batekin datorrela, eta oinarri hori kontuan izanik hasi behar dugu lanean. Beraz, haurrek dakitena hartu behar da aintzat (teklatura erabiltzen dakiten, irakurtzen eta idazten...) eta dakiten hori ez da ezertan oztopo izan behar, alderantziz, eskolak egoera horretan beste mota bateko lanketa gauzatu beharko du. Lanketa hori teklatuarekin eta Teknologia Berriekin lotua egongo da, hau da, haurren ezagutzek ez dute arazo izan behar, kontuan hartu behar dira eta hortik abia-

tu. "Ni, irakaslea, naiz jakintza guztiaren jabe eta zuek, haurrok, ezjakinak zarete-nez, nik esandakoa egingo duzue" bezalako jarrerarekin ez da aurkeztu behar gelan. Alegia, haur bakoitza datorren bezala dator eta hori da daukaguna. Beraz, hortik abiatuz egin behar da lan.

Gaur egunera arte arkatzarekin ikasten idazten. Egun, aldiz, ordenagailuen bidez ikasita datoz batzuk. E-torkizunean arkatzarekin ere irakatsiko zaie uste al duzu ala ordenagailuak ordezkatzeko du?

Hemendik urte batzuek barru teklatura eta arratoia ordenagailuaren periferiko bezala desagertu egingo direla esaten ari dira. Horren aurrean, arkatza edota bolalumenaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke, ordezkaria ezina den zerbait iruditzen baitzait. Gainera, bolaluma sakelean eraman dezakezun gauza bat da eta edozein momentutan oharren bat idatzi behar izanez gero, esku artean eduki dezakezun baliabidea da. Garrantzizkoena irakurtzen eta idazten jakitea da, eta idatzi eta irakurtzeko ekintzek zer zentzu duten. Eta era berean, objektu kulturala den idazketara iritsi ahal izatea. Garrantzi gutxien idazketa hori gauzatzen den modua du. Nire iritziz, teklatuaren bidez idazten dakienak, arkatzez ere idazten badaki. Ez dut uste teklatuarekin idazten bakarrik dakien haurrik egongo denik.

Gertatu ohi da erosotasunera jotzea, eta teklatuarekin idaztea erosoagoa denez, badirudi horretarako joera dagoela.

Nire ustez ez da erosotasun kontua. Kasu batzuetan testuak teklatuarekin idatziko dira, baina zenbait egoeratan testua beste modu batera idatzi behar izaten da; esaterako, eskuz. Nik, adibidez, ez dut nire burua erosketako zerrenda ordenagailu idazten ikusten, beti eskuz idatzi izan dut eta horrela jarraituko dut. Eta gauza bera gertatzen da beste hainbat kasutan ere.

Bai, baina beharbada iritsiko da egun bat erosketen zerrenda ere ordenagailuz egingo dena.

Ez dakit, posible da, zergaitik ez? Orain dela urte dezente ez zegoen garbigailurik; egun, berriz, etxe guztietan aurki dezakegu. Orain arte aipaturiko guztiarekin ere horrelako zerbait gerta daiteke.

Zalantzarik gabe, aurrerapen prozesu ikaragarrian murgildurik gaude. Aurrerapen hori onuragarria izango al dagozikiontzat?

Bai, nire ustez onuragarria izango da. Horren guztiaren gakoa bitartekoen erabilera aurkitzen dugu, hots, ordenagailua momentu bakoitzean erabiltzen jakin behar da eta ongi erabiliz gero positiboa izan daiteke. Duela urte batzuk, zinea agertu zenean, antzerkiari lekua kenduko ziola komentatzen zen. Haatik, antzerkiak oraindik ere bizirik dirau bere lekua betez. Horrekin adierazi nahi dudana da, gauza bakoitzak bere espazioa duela eta erabilerak definitzen dituela guk momentuero erabiltzen ditugun gauzak.

Bestalde, irakasleriaren formazioari dagokionean, irizpide batzuk jarraitu behar direla komentatu duzu. Zein izango liriateke irizpide horiek?

Gauregun formakuzioa ugari eskaintzen da. Nire esperientziaren ikuspuntutik, irakasleriaren formakuntza informatikan ematen da, hainbat irakasle haurrek baino gutxiago baitakite ordenagailuei dagokienean. Informatikako formakuntza horrez gain, informatikako formakuntza pedagogikoa ere behar da. Hau da, esku artean dugun programa bat aztertzen jakitea beharrezkoa da; ona ala txarra den, zertarako balio duen eta abar. Aldi berean, material horren erabilera irizpideak ere prestatu beharko dira (metodologia, errekurtsuak...), oraindik egin gabe dagoen formakuntza hori guztia, alegia.

Ordenagailua erabiltzeaz gain, zuk aipaturiko irizpide pedagogikoak edukitzea ezinbestekoa dela aldarrikatzen duzu.

Bai, hori aldarrikatzen dut, Teknologia Berriak hezkuntza zentzuarekin erabili behar direla uste baitut.

II. Udako Topaketa Pedagogikoak

antolatu dira

dagoeneko

Aldizkari honekin batera

doakizue uztailearen 3, 4

eta 5ean Donostian

burutuko diren Topaketen

egitaraua



Berriak apirila

Argitalpenak



Europako Batasuna XXI. mendean

Oinarrizko Liburutegia
Gaiak
185. orr.

Liburu honetan Europa eraikitze-ko emandako urratsak aztertzen dira, kultura eta hizkuntza gutxituei zabaltzen zaizkien arazo berriak bereziki agertuz. Europa berdea, urdina, ingurugiroa, egitura politiko eta militarrek, moneta eta kanpo-harremanak aztergai dira oso era pedagogikoan. •



Sisifo maite minez

Laura Mintegi
Txalaparta
181 orr.

Laura Mintegiren azken lan honek maitasun kontuak dakarzkigu. Maitemina, pasioa, desira, gabezia, antsia, hutsunea, itxaropena, etsipena agertzen dira Ane protagonista- ren ibilbidean. Anek Mikel ezagutu ondoren familia utzi zuen, eta urte batzuen ostean berriz itzultzen da etxera. Itzulera horretan kokatzen gaitu egileak. •



Deabrua gorputzean

Seve Calleja
Elkarlanean
89 orr.


Eramun mutikoaren kezkak kontatzen dizkigu liburu honek. Bere aitona adarra jotzen dio, eta barruan deabrua duela esan zion. Erramun zeharo beldurtu zen eta gaizki pasa zuen. Baina gero gauza aldatu ziren, eta bera izan zen aitona adarra jotzen hasi zena. Bien arteko istorioek osatzen dute kontakizun hau. •



Ilustrazioa Europan eta Euskal Herrian

Oinarrizko Liburutegia
Gaiak
149 orr.

Ilustrazioa zer den (razionalismoa, estatuen sorrera, emakumeen jarduera berriak) eta Ilustrazioa Europan nola garatzen den aztertzen da. Gero, Ilustrazioa Espainian, Katalunian, Galizian eta Euskal Herrian nola iragan zen kontatzen da, bereziki azken honetan. •



Nire ama

Ricardo Alcántara eta
Emilio Urberuaga
Tarttalo
22 orr.

Zaldiko-Mandiko bildumako Trostan saileko liburua dugu hau, Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat zuzendurik dagoena. Irudimen, samurtasun eta umorez moldaturik, egokia da haurrak irakurtzen ikasi ondoren, irakurketa luzexago-etara egokitzen joan daitezen. •



Nolako eskola nahi dugu?

Eskola Publikoa aldizkaria
STEE-EILAS
Martxoa 2001

Aldizkari honen azken zenbakian irakaskuntza eta emakumearekin lotutako gaiak jorratzen dira: hezkuntza politikak eta balioak hezkuntzan, zuzendaritza taldeak, gizarte zientziatiko diskurtso baztertzaila, emakumeak eta etorkinak, osasuna eta berdintasuna lanean, eskola eraikitzen aniztasunetik eta berdintasunetik... Horrekin batera, nazioarteko gaien alorrean El Salvador eta Iraki buruzko artikuluak jasotzen dira. •

Ehige konfederazioan bildu dira Euskal Herriko eskola publikoko ikasleen guraso elkarteak

Euskal Eskola Publikoko Guraso Elkarteak baturik eratu berri da Ehige, guraso elkarte guztiak biltzen dituen konfederazioa. Bizkaiko Bige, Arabako Denon Eskola, Gipuzkoako Baika-ra, Nafarroako Sortzen-Gurasoak eta Iparraldeko Ikas-Bi elkarteak batu dira indarrak batzea erabaki dutenak.

Elkarte bakoitzak bere herrialdean autonomoki lan egiten jarraituko du orain arte bezala, baina zenbait ekimen elkarrekin burutuko dituzte, indarrak batzeak bidea erraztuko die-lak pentsatzen baitute.

Era berean, 450 ikastetxe publikotan lanean ari diren guraso hauen helburu nagusiak berdinak dira, eta hori izan da elkartzera bultzatu dituen arrazoietakoa bat. Denek "berezko hezkuntza sistemaren alde" lan egiten jarraituko dute. Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna defendatzen dute, eta eskola euskalduna, dohaine-



Martxoaren 30an aurkeztu zen ofizialki Ehige Bilboko Guggenheim Museoa.

koa, ezberdintasunak ekiditen dituen, aurrerakoa, berritzailea, autonomia eta kudeaketa demokratikoduna.

Horrez gain, hezkuntza komunitateko beste eragileekin batera erabakitzeko ahalmena izan nahi dutela adierazi dute, hala nola, didaktika, teknika eta antolakuntza arloan, hots, se-

me-alaben heziketarekin zerikusia duten gai guztietan.

Gaur egun Bigek Bizkaiko 81.000 ikasleren gurasoen ordezkartza du; Gipuzkoan Baikaarak 45.000rena; Araban Denon Eskolak 23.000, Nafarroan Sortzen-Gurasoak 8.000 ikaslerena; eta Iparraldean Ikas-Bik 3.000rena.

"Hezkuntza sistema eta indarkeria politikoa" jardunaldiak

EILAS sindikatuak antolatuta "Hezkuntza sistema eta indarkeria politikoa" jardunaldiak EHUko Leioako Zientzia Fakultatean burutuko dira apirilaren 26an. Gure herriak bizi duen indarkeria, jatorri politikoa duena, hezkuntza sisteman ere islatzen dela kontuan harturik, horren inguruko hausnarketa bultzatu nahi dute. Horretarako, egitarau hau prestatu dute:

10:00etan Mahai ingurua: **Hezkuntza sistema eta indarkeria politikoa**. Azterketa teorikoa sindikatuarekiko hurbilen dauden ikuspuntuetatik. Parte-hartzaileak: Ramon Zallo (EHU), Imanol Zubero (EHU, Gesto por la paz), Txoli Mateos (EHU, Hezkuntza sisteman eta euskalduntzean espezialista). Moderatzailea Belen Arrondo (EILAS).

12:00etan Protagonistak: **Indarkeria egoerekiko esperientzia zehatzak**. Parte-hartzaileak: Afro Olabe (Gasteizko Koldo Mitxelena BHIko ikasketa burua) eta Ana Izagirre (Ehige-ko lehendakaria). Aurkezlea: Joseba Gallastegi (EILAS).

16:00etan Lan taldeak: **Zer egin? Hezteko eta prebenitzeko neurriak**. Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza I, Bigarren Hezkuntza II eta Unibertsitatea.

18:30etan Ondorioak.

19:00etan Sintesia eta Agurra

Informazio gehiagorako:
STEE-EILAS UPV-EHU (Leioako campusa)
Tel.: 94 601 24 35
Faxa: 94 601 24 34

Udaberriko jaialdian eta hemen

- **Apirilak 29:** Ikas-Birenjaia Maulen
- **Maiatzak 6:**
* Euskal Eskola Publikoaren X. Jaia Bilbon "Mugak gaindituz" lema-rekin.

* Herri Urrats Senperen "Doinuz eta hitzez" lelopean.

- **Maiatzak 27:** Ibilaldia Bilbon "Hemen da geroa" lema-pean.

- **Ekainak 3:** Sortzen-Ikasbatu-zen VI. Jaia Iruñeko Takoneran. Leloa "Milurteko berrian aintzidari euskal eskola publiko berria".

- **Ekainak 10:** Gipuzkoako Eskola Txikien XVI. Jaia Angiozarren "Eskola Txikiak Bizirik" aldarrikapenarekin.

- **Ekainak 17:** Araba Euskaraz La Puebla de Argazonen "Hazteko erein" lelopean.

Ikasleak euskal edukiak eta curriculumak lantzeko proposamen serioarekin datoz



Ikasle Abertzaleak-ek Edukien azterketarako gidaliburua eta Euskal curriculumerantz abiatzeko oinarritzko proposamena aurkeztu berri ditu. Euskal edukien eta curriculumaren arloan burutzen ari diren lana sakontzeko bitarteko izango dira material hauek. Lehenengoarekin ikastetxeetan lantzen diren edukien diagnostikoa egingo da, eta bigarrenarekin euskal curriculumak osatzen joateko proposamenak biltzen ditu.

Bilan hauekin zerbait erabat praktikoa egitea izan dute helburu. Orain arteko lanari jarraipena emateko urrats zehatzak ematea, alegia. **“Euskal edukien azterketarako gidaliburua”**ren helburua ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburu, mapa, irakasgai eta ospakizunen azterketa xumea egitea da. Liburuxka guztiz praktikoa da, ariketa liburu bat da. Lau atal lantzen dira: testuliburuak, mapak, ikasgaien antolaketa eta ospakizunak. Atal bakoitzak bere aurkezpena du, eta on-

doren taulak eta galderak daude, ikasleek bete ditzaten. Horri atxikirik “Jakinezazu” izeneko informazioa dago, dagokion atalari buruzko zenbait ideia azpimarratzen dituelarik. Hori guztia hainbat irudiz osatzen da. Atalak osatzeko erabili diren irizpideak lurraldetasuna eta generoen arteko bereizketa izan dira bereziki.

Ariketa horiek eginez ikasleei hausnarketarako bidea irekiko zaie, eta planteatzen diren galderak erantzunez eta taulak betez ondorio batzuetara iritsiko dira. Azken finean, ikastetxeko diagnostikoa egingo da.

Ikasle Abertzaleak asmoa gidaliburua hau ikastetxeetako ikasleei banatzea da. Edukien analisia egiten ari diren D ereduko DBHko eta Batxilergoko ikastetxeetako ikasleen artean banatuko dute gidaliburua. *“Lehenengo eta behin, ikastetxe bakoitzean batzarrak osatuko ditugu”* azaldu digute Ikasle Abertzaleak-eko kideek. *“Batzar horietan klase bakoitzeko ordezkari bana bilduko da eta horiei gidaliburuaren inguruko informazio guztia emango zaie. Ondoren, ordezkari bakoitzak bere klasean azalduko du eta han landuko da liburuxka. Klase ordutan bete eta landu da-*

din saiatuko gara. Behin gidaliburuko galderak erantzun ondoren, klaseko errealitatearen diagnostika egina geldituko da, eta klase guztietakoak bilduz ikastetxekoa”. Ondorioen biltzeta hori bigarren asanbladan aurkeztuko dute, eta horrela ikasleek ikastetxeko egoera orokorra zein den jakin ahal izango dute. Horren ondoren etorriko da bigarren urratsa, hots, euskal curriculumak osatzeko proposamenak martxan jartzea.

Lan hori guztia irakaskuntzako beste eragileei zabaltzea interesgarri jotzen dute Ikasle Abertzaleak-eko kideek. *“Irakasleei alde aurretiko jarriera eskatzen diegu. Gainera, ikasleoi zein material eta irakaskuntza mota jasotzen dugun hausnartzeko bide emango digun bezala, irakasleei ere zein material erabiltzen duten konturatzeko parada emango die gidaliburuko galderak erantzuten hasten badira”*.

Gidaliburua atalez atal

Aipatu dugun bezala, liburuxkan lau atal bereizten dira: testuliburuak, mapak, ikasgaien antolaketa eta ospakizunak.

Testuliburuak gaur egungo hezkuntza sistemek curriculumean finka-

tutako edukiak irakasteko bitarteko garrantzitsuenetarikoak dira ikasleen iritziz. *“Horregatik, Euskal Herriko ikastetxe gehienetan erabiltzen diren testuliburuak, espainiar nahiz frantziar curriculum inposatuak euskal ikasleriari eduki, ikuspegi, balio... jakin batzuk transmititzeko eta bere nahien arabera ematen direla ziurtatzeko bidea dira”*. Ildo horretatik abiatuz, atal honetan lortu nahi duten helburua honakoa da: gaur egun erabiltzen diren testuliburu bidez, zuzenean (agerikoak) eta zeharka (ezkutukoak) jasotzen diren edukien azterketa xumea egitea. Horretarako aztergai dira liburuaren jatorria, liburuaren edukien azterketa, liburuak darabilen curriculum, darabilen lurralde-ardatza, toki eta izen erreferentziak, egitate historikoen erreferentziak eta interpretazioak, mapak, argazkiak, marrazkiak, diagramak eta taulak...

Mapen azterketaren atalean ikastetxean erabiltzen diren mapak azterzea proposatzen da; Euskal Herriaren izaera onartzen duten ala ez, adibidez.

Ikasgaien antolaketa aztertzerakoan ikasgaiei zenbat ordu eskaintzen zaizkien ohartzea da helburua. Hizkuntza eta Literatura, Historia, Geografia eta Erljioa ikasgaiez gain, hautazkoen aukeraketa eta ofizialki derrigorrezkoak ez diren ikasgaiak aztertzen dira.

Ospakizunei dagokienez, ikastetxeetako hainbat jaiegun euskal ikasleei ez dagokienak direla aldarrikatzen dute ikasleek. Hori dela-eta, ikastetxeetan zein ospakizun ospatzen diren eta euskal kutsurik ba ote duten aztertea planteatzen da.

Bigarren urratsa: euskal curriculumarako proposamenak

Gidaliburua aztertu, hausnartu eta erantzun ondoren bigarren urratsa etorriko da: euskal curriculumarentz abiatzeko oinarritzko proposamenak abian jartzea. *“Gaur egun euskal ikastetxeetan darabilgun curriculum espainiarra nahiz frantziarra da, es-*

painiar eta frantziar legediak inposaturikoa. Baina egoera hori ez da inolaz ere aldaezina eta hainbestetan aldarrikatu izan dugun euskal curriculumarentz aurrerapausoak emateko garaia heldu da, ahalmena eta beharra bai baititugu”.

Badakite ezinezkoa dela euskal curriculum definitu batetaz hitz egitea, baina era berean, argi daukate curriculum horretarantz aurrerapausoak ezin direla eman esatea. *“Badakigu neurri hauek martxan jartzeak ez duela inondik inora euskal curriculumaren ezartzea suposatzen, baizik eta soilik berauetarantz abiatzeko neurri zehatz eta eskuragarriak zehazten joatea”*.

Ikasle Abertzaleak-en asmoa Euskal Herriko ikastetxeetan euskal curriculumarentz abiatzeko gutxieneko neurri ezinbestekoak eta urgenteak hartzea da. *“Proposamen minimoak dira guk egiten ditugunak, oso gutxieneko neurriak, baina gatazka sortuko dutenak, eta hori da nahi duguna. Ez dugu aldaketa sakonik bilatzen, urrats sinpleak baina eraginkorrak baizik. Ikastetxe bakoitzak ikusiko du zer neurri har dezakeen”*.

Ikasle Abertzaleek aurkeztutako euskal curriculumaren proposamen honek ezinbesteko bi zutabe jasotzen ditu: euskal hizkuntza (euskara) eta euskal edukiak (zentzu zabalean). Horiek ardatz harturik, gutxieneko neurriak lehen aipatutako lau ardatzetan hartu beharrekoak dira: testuliburuak, mapak, ikasgaien antolaketa eta ospakizunak.

Testuliburuari dagokienez, euskal ikastetxeetan zein testuliburu erabili behar den hautatzerakoan honako irizpide hauek iparorratz bezala erabiltzea proposatzen dute:

- Euskal Herrian eta Euskal Herri-rako ekoiztuak izan daitezela.
- Euskal Herriaren herri izaera onartzen eta aintzakotzat har dezatela.
- Euskal kultura (bere zentzu zabalean) isla dezatela.
- Ikasgai baten garapenerako honako ezaugarri hauek biltzen dituen

testuliburuak ez badago, bestelako bitartekoetara jotzea (apunteak...).

Mapen kasuan, Euskal Herri osoa barne hartu eta Euskal Herriaren herri izaera onartzen duten mapak erabiltzea proposatzen dute. Ez dituzte onartzen Euskal Herriaren izaera onartzen ez dutenak.

Jai egunei dagokienez, euskal ikasleei inposatuak zaizkien hainbat jai egun lanegun izendatzea proposatzen dute: Hego Euskal Herrian urriak 12 eta abenduak 6, eta Ipar Euskal Herrian azaroak 11 eta maiatzak 8.

Irakasgaien antolaketa atalean, curriculum espainiarrak eta frantziarrak osotara zehazten dituzte zein ikasgai eskaini derrigorrezko eta zein hautazko. Horren aurrean hainbat neurri proposatzen dituzte; esaterako; gaztelania ikasgaiari ordu gutxiago eskaintzea eta euskal hizkuntzari gehiago, Euskal Herriko historia, gizarte zientziak eta geografia ikastea, euskal literaturari ordu gehiago eskaintzea, erlijioa ikasgai bezala kentzea, hautazkoak aukeratzeko parada izatea, ikasleen antolaketa-asteen ordu bat edukitzea, urtero ikasmila bakoitzeko txango kopurua gehitzea...



Lauwrence Kohlberg

Laurence Kohlbergekek garapen moralaren teoria psikologikoa aztertu du. Garapen horren gaiak eta etapak ikertu ditu, eta bere teoriak hezkuntzan aplikatu ditu. Ikastetxeetan Bidezko Komunitatea lantzeko proposamen zehatzak egiten ditu, eta estrategia bezala dilema arteko eztabaida proposatzen du. Bere teoriaren aplikazioak gizarte zientzietako curriculumean egin izan dira batez ere, eta emaitza oso onak izan dituzte. Eskoletan eztabaida moralaren eredia jarraitzeko pauso nagusienak ere planteatzen ditu.

Biografia

Pertsona baten biografiak eta tesuinguruak bere bizitza eta lana markatzen duela esan genezake. Jatorrijudutarra duen Lawrence Kohlberg Bronxvillen (New York) jaio zen 1927ko urriaren 25ean. Chicagon egin zituen bere unibertsitate ikasketak eta han finkatu zuen bere teoria osatzeko erabili zuen formakuntza teorikoa. Chicagoko Unibertsitatean aurkeztu zuen tesia 1958an. Ikerketa transkulturala eta luzetarakoa da, eta garapen moralak kultura zehatz baten baitan ez dagoela erakusten du, unibertsala dela. Bere tesian 11-16 urte bitarteko 65 subjektuen garapen moralak ikeretzen du. Harvard Unibertsitateko Hezkuntza Moraleko Zentroko zuzendari izan zen eta bertatik komunitate guztia-erentzako, hau da, guraso, irakasle eta ikasleentzako heziketa programen ezarpenean parte hartu zuen. Programa horiek Cambridge, Brookline eta Pittsburgh-eko zentroetan ezarri ziren eta oihartzun handia izan zuten hezkuntza munduan. 1984an idatzitako bere lanaren zatirik garrantzitsuenak hiru liburukitan garatzen da. Lehenengoan bere filosofia planteamendua garatzen du eta

Conchi Medrano

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea



justizia planteatzen du gizarte edo talde baten garapenerako oinarri bezala. Bigarrenean (1992an gaztelaniara itzulia) garapen moralaren teoria psikologikoa aurkezten du, eta garapen moralaren mailak eta etapak esplikatzen ditu. Hirugarrenean bere teoriak hezkuntza arloan izan duen aplikazioa aurkezten du, hezkuntza zentroetan “atmosfera moralak” edo Bidezko Komunitatea lantzeko proposamen zehatzak eginez. Kohlbergekek tropikoetako gaixotasun bat hartu zuen. 1987an ospitalizatu zuten eta urte bereko ekainaren 7an hil zen.

Idéia nagusiak

Kohlbergen teoria printzipio moral unibertsaleatik abiatzen da, printzipio horiek ideia erregulatuak eta edukiz hutsak bezala ulertuta. Adibidez, “Joka ezazu beste edonork egoera horretan jokatzea nahiko zenukeen bezala” esaten duenean, pertsona moral guztiak ados egon daitezkeen printzipio orokorrei egiten zaie erreferentzia (Kohlberg, 1984; Díaz-Aguado, 1990; Kohlberg, Power eta Higgins, 1997). Bestalde, “ez duzu adulteriorik egingo” esaten badut, arau konbentzional bati erreferentzia egiten ari banatzaio, arabiar kultura edo europar kultura duen pertsonak desberdin interpreta dezakete. Erabakiak arau konbentzionaletan oinarrituko bagenu, ez ginatke ados jarriko. Eguneroko esperientziak garbi erakusten digu gatazka pertsonalez gain kultur arauak eta posizio sozialaren baitako arauak dardela, eta printzipioetan oinarritzen ez direnez ezin dira unibertsalizatu. Hau da, gatazka egoeratan erabaki bat hartu behar denean, garrantzitsua da pertsona gehienak, beren kultura, posizio soziala, ideologia eta erlijio sinesmenak alde batera utzita, ados egongo lirakeen ar-

gudioetan oinarritzea.

Epistemologia genetikoaren barruan, Kohlbergek moral garapenaren teoria bat egin du. Dilema moralak erabili ditu bai subjektuaren ebaluazioa egiteko bere arrazoiketa moralaren mailaren arabera, eta baita eztabaida eta gatazkaren bidez arrazoiketa maila altuagoak bultzatzeko.

Garapen moralaren hiru maila handi sailkatu ditu eta sei fase bereizten ditu.

Maila aurrekonbentzionalak 1. fasea (moraltasun heteronomoa) eta 2. fasea (harremanen moraltasuna) biltzen ditu. Maila honetan arau sozialen ulermenik ere ez dago, subjektuarengandik kanpo daudela ulertzen baita. Gertaerak berehala ematen duten onuraren arabera baloratzen dira eta ez dago elkarrekiko interakzioetarako gaitasunik. Arau edo aginduen hitzez hitzeko obedientziaren baitan dago ongia, eta horien arabera saria edo zigorra jasotzen da.

Maila konbentzionalak 3. fasea (pertsonek arteko araudiaren moraltasuna) eta 4. fasea (gizarte sistemaren moraltasuna) biltzen ditu. Pertsonek eta taldeen leialtasuna baloratzen dituen perspektiba soziala du maila honek. Ongia adostasunarekin eta besteek guregandik espero dituzten espektatibak betetzearekin definitzen da. Maila honetan gizarte sistema osotasunean mantentzeak garrantzi handia du.

Maila postkonbentzionalak 5. fasea (giza eskubideen moraltasuna) eta 6. fasea biltzen ditu. Maila honetan subjektua bere taldeetik harantzago doa eta bere printzipioak eraikitzen ditu arau sozialen gainetik. Oinarritzeko eskubide unibertsalen arabera eta taldearen legeak edo arauak gizakien eskubideen aurka doazenean gizarteak eta indibiduoak mantendu behar dituzten balioen arabera definitzen da ongia. Gizarte sistema pertsona bakoitzak gizarteko kide guztien eskubideak eta ongizatea berma daitezen libreki onartutako hitzarmen baten ondorio bezala ulertzen da.

Garapen moralerako estrategia bat bezala dilemen arteko eztabaida bultzatzen du egileak. Dilemek beti bi balioen arteko gatazka aurkezten dute, eta hipote

tetikoak edo errealak izan daitezke.

Dilema hipotetikoek arazo deskontestualizatuak planteatzen dituzte eta beti interesen gatazka bat agertzen da. Kohlbergek bederatzi dilemekin lan egin zuen eta zuzenketa eskuliburu bat egin zuen. Horrek subjektuak arrazoiketa moralaren fase batean kokatzea ahalbidetzen digu.

Dilema hipotetikoek zenbait abantaila aurkezten dituzte:

- ikasleei balioen arteko gatazka dela ulertaraztea ahalbidetzen du;

- eta batez ere, ahalbidetzen du ikuspuntu metodologikotik arrazoiketa moralaren diagnostiko bat egitea interbentzio baten aurretik eta ondoren, kultura desberdinen laginak konparatzea, luzetarako ikerketak burutzea eta abar.

Haatik, gure ikasleekin loturarik ez duten egoerak izaten dira, eta horregatik, garapen moralaren estrategia bezala, dilema errealak egokiagoak izan daitezkeela pentsatzen dugu.

Dilema errealak ikasleek beraiek egituratzen dituztenak dira eta beraientzat oso esanguratsuak diren bi balioen arteko gatazka adierazi ohi dute (Medrano eta De la Caba, 1992; De la Caba, 1993, 1994; Medrano eta De la Caba, 1994; Medrano, 1998; Cortés, Aierbe eta Medrano, 2000). Dilema mota hauek ikasle talde batek testuinguru zehatz batean planteatzen dituen balioen gatazkak ezagutza ahalbidetzen du. Gelan bertan edo instituzioan eztabaidagarriak bihurtzen diren eduki esaguratsuak dira. Dilema horiek zeharka ere berreskura daitezke eta hainbat diziplinetan planteatu (matematikan, filosofian, biologian eta abar). Edo besterik gabe heziketa moralerako erretserbatutako espazio bereziak erabil daitezke.

Heziketa interbentzioak

Garapen morala bultzatzeko perspektiba kognitibo-ebolutibotik egin diren lehen heziketa interbentzioak gatazken sorrera eta eztabaida moralaren prozeduraren bitartez perspektibak hartzeko prozesuaren estimulazioan oinarritzen dira. Hori Blatt eta Kohlbergen (1975) lan ildo da. Prozedura hori

gizarte zientzietako curriculumean aplikatu da eta emaitza oso garrantzitsuak eman ditu. Ikuspuntu hori gazte gaizkileen heziketan aplikatzen saiatutakoan zera ikusi zen: ezer gutxi lor zitekeela eztabaida moralen bitartez instituzioaren beraren justizia egituran esku hartzen ez bada; hau da, ordainsarien banaketarako arau eta printzipioetan, zigorretan, erantzukizunetan eta pribilegioetan, eta beraiek hartzen dituzten moduan. Horrela, **Just Community** izeneko programak jartzen dira matxan. Parte-hartze demokratikoko sistemen ezarpenean oinarritzen dira.

Programa horien garapenaren ondoren zera egiaztatu da: maila kognitiboan ez ezik portaera mailan ere eraginkortasunez interbenitzeko beharrezkoa dela taldearen balioen egitura, atmosfera morala, garatzea. Blatten la-

Garapen moralerako estrategia bezala dilemen arteko eztabaida bultzatzen du, baina beti bere kontestuan aztertuz eta arrazoiketa hutsetik haratako joanez

naren ondotik hainbat ikerketa burutu dira eta eztabaida moralaren eragin-kortasuna babesten dute eztabaidetan parte hartzen duten ikasleen arrazoiketa moralaren faseetan aurrerapausoak emateko estrategia bezala.

Hori dela-eta, oso garrantzitsua da garapen morala bere konstestuan aztertzea eta arrazoiketa kognitibo hutsetik haratago joatea (Modgil eta Modgil, 1986; Elexpuru eta Medrano, 1995; Medrano, 1999; Aierbe, Cortes eta Medrano, prentsan). Beharrezkoa da bizitza erreala berau estimulatzen duten interakzioekin eta gatazka sozialekin loturik aztertzea (Medrano eta Oihartzabal, 1992).

Kohlbergen pentsamendua aurrera eramateko nahian hainbat ikerketa burutu dira Euskal Herrian. Bizitzaren zikloan sortzen diren dilema errealak bilitzen dituzte. Era berean, heziketa zentroan bertan dilemen eztabaida lanahalbidetzen dute.

Heziketa zentroetan eztabaida moralaren ereduak ezartzeko jarraitu behar diren pasuo nagusienak hauek dira (Hersch, Reimer eta Paolitto, 1984):

1.- Ikasleen artean komunikazioa eta elkarlana bultzatuko dituen konfiantza giroa sortzea, eta era berean, irakaslearenganako orientazioa gutxituko duena.

2.- Gatazka morala zer den esplikatzea dilema hipotetikoen bitartez ikasleek ulertzen dutela ziurta dezagun.

3.- Ikasleek beren eguneroko bizi-tzan dilema moralak ezagut ditzaten lortzea eta bizitzen dituzten hainbat ohiko egoeren konnotazio moralak antzeman ditzaten sentsibilizatzea.

4.- Talde osoari azalpenak eman ondoren talde txikitan lan egitea guztien parte-hartzea errazteko. Ondoren, talde txiki bakoitzeko koordinatzaileak talde handiari bere taldean agertutako argudioak azaltzen dizkio.

5.- Erabaki moralak hartzerakoan eragiten duten prozesu kognitiboaren kontzientzia hartzea erraztea.

6.- Zenbait perspektiba har ditzaten estimulatzea gauzak zalantzan jarri, hartutako erabakiaren zergatiak galde-tuz, egoerak zailduz, dagoen fasean o-

harkabean pasatzen diren elementuak aurkeztuz eta abar.

7.- Komunikazio gaitasuna garatu ikasleei entzuteko, nor bere ideiak adierazteko, desadostasunak igartzeko, besteek azaldutako argudioak kontuan izateko nor bere arrazoiketa egiterakoan eta abar.

Eztabaida moralaz gain, Kohlbergen ereduak instituzio bateko kideei honako esperientziak luzatzea eskatzen du:

1.- Erabakiak hartzerakoan erantzukizun erreala izatea.

2.- Bidezkotzat jotzen den komunitatean parte-hartzea.

Hori da, seguraski, programako elementurik garrantzitsuenak, eta eztabaida taldeetan, komunitateko bilertan eta instituzioan postu desberdina betetzen duten pertsonen arteko eguneroko interakzioetan garatzen da. Bide-nabar, helburu horiek lortzeko beharrezkoak dira baldintza hauek:

1.- Demokrazian eta justizian oinarritutako komunitate baten eraketa. Bertan indibiduo bakoitzak botu bat du formalki eta posizio desberdina duten pertsonen arteko gatazkak (irakasleak eta ikasleak) eskubide berdineko indibiduen arteko justizia gai bezala bideratzen dira.

2.- Erantzukizuna hedatzea. Ikasleek instituzio arauak egiterakoan parte hartzen dutenean, arauak betetzean baino konpromiso altuagoa garatzen dute naturalki.

3.- Erantzukizun kolektiboa bultzatzea eta konfiantza giroa sortzea. Garrantzitsua da erantzukizun kolektiboren zentzua sortzea, non pertsona bakoitza taldearen ongizatearen erantzule den eta taldea pertsona bakoitzaren ongizatearen erantzule.

4.- Pentsatzen eta esaten denaren arteko koherentzia bultzatzea. Taldeak berak arrazoiketaz gain portaera morala ere bultzatu behar du. Zentzu horretan, beharrezkoa da pertsona bakoitzaren trinkotasunari buruzko hausnar-keta bultzatzea, hots, defendatzen dituen balioen eta bere portaeretan islatzen diren artekoak.

Bibliografia

Kohlbergen lanak:

- KOHLBERG, L. (1984): The psychology of moral development. San Francisco: Harper and Row. (Traducción española 1992. Bilbao: Desclee y Brouwer)

- KOHLBERG, L., POWER, F.C. eta HIGGINS, A. (1997): La educación moral según Lawrence Kohlberg. Barcelona: Gedisa.

Kohlbergi buruzko lanak euskaraz:

- MEDRANO, C. eta OIHARTZABAL, L. (1992): Kultur-elkartasuna eta balioekiko hezikuntza. Tantak, 8, 7-18.

Kohlbergi buruzko lanak gaztelaniaz:

- AIERBE, A., CORTÉS, A. eta MEDRANO, C. (prentsan): Una visión integradora de la teoría kohlberiana a partir de las críticas contextuales: propuesta de investigación. Cultura y Educación.

- CABA, M.A. De la (1993): Razonamiento y construcción de valores en el aula. Infancia y Aprendizaje, 64, 73-94.

- CABA, M.A. De la (1994): Desarrollo de los valores: Una experiencia de intervención en quinto y octavo de E.G.B. desde la perspectiva constructivista. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.

- CORTÉS, A., AIERBE, A. eta MEDRANO, C. (2000): Los dilemas de los adolescentes desde el marco del ciclo vital. En Marchena, E y Alcalá Cuevas, C. La perspectiva de la educación en el siglo que empieza. Cadiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cadiz.

- DIAZ-AGUADO, M.J. (1990): El desarrollo moral. En Madruga, J. y Lacasa, P. (Dir.) Psicología Evolutiva. Madrid: Uned.

- DIAZ-AGUADO, M.J. eta MEDRANO, C. (1995): Educación y razonamiento moral. Bilbao: Mensajero.

- ELEZPURU, I. eta MEDRANO, C. (1995): El desarrollo de los valores a través de un modelo integrado. Aprender a Pensar, 12, 41-53.

- HERSCHE, R.; REIMER, J. eta PAOLITTO, D. (1984): El crecimiento moral de Piaget a Kohlberg. Madrid: Narcea.

- MEDRANO, C. (1998): Los dilemas contextualizados. Un estudio realizado en el País Vasco. Cultura y Educación, 11-12, 183-195.

- MEDRANO, C. (1999): Panorámica general de la crítica al modelo estructuralista de Kohlberg. En Perez Delgado, E. y Mestre, V. Psicología del desarrollo moral y crecimiento personal. Barcelona: Ariel.

- MEDRANO, C. eta CABA, M.A. De la (1992): Trabajando con dilemas en el aula. Aprender a pensar, 5, 71-81.

Kohlbergi buruzko lanak ingelesez:

- BLATT, M. eta KOHLBERG, L. (1975): The role of classroom discussion on children level of moral judgement. Journal of Moral Education, 4, 129-161.

- MEDRANO, C. eta CABA, M.A. De la (1994): A model of Intervention for improving Moral reasoning: An experiment in the Basque Country. Journal of Moral Education, 23, 4, 427-437.

- MODGIL, S. eta MODGIL, C. (Eds) (1986): Lawrence Kohlberg. Consensus and Controversy. Filadelfia: Famer-Press.

hik hasi u k t k t k

2 1 k uzt I

DONOSTIA

KOLHBERG - WEB ORRIA LANTZEN - ALDIZKARI ELEKTRONIKOAREN PRESTAKETA - KLIK PRAKTIKAN - IPUIN MULTIMEDIAK SORTZEN, "FABULA PROIEKTUA" - INFORMATIKA PROPOSAMEN KURRIKULAR BATEN APLIKAZIOA - MUSIKA HEZKUNTZA BEREZIAN, ASCHERO METODOA - PLIS-PLAST, PLASTIKA - MUNDUKO DANTZAK ESKOLAN - EUTONIA, GORPUTZA ETA SENTSazioAK - HEZIKETA FISIKOKO IRAKASLEEN TXOKOA - PSIKOMOTRIZ PRAKTIKAREN ADINKAKO ANALISIA - EUSKARAZ ARITZEKO KANTAK ETA JOLASAK - HIZKUNTZA IDATZIA - LITERATURA ETA HAURREN MUNDUA - LITERATUR TXOKOA: LIZARDI, MIRANDE ETA SARRIONANDIA - NIRI EZ ZAIT MATEMATIKA GUSTATZEN - HERIOTZA HEZIKETAN: EGUNGO TABUA? - ESKOLAK BAKARRIK EZIN... FAMILIAK BAKARRIK EZIN... - GATAZKEN TRATAERA BIGARREN HEZKUNTZAN - HEZKUNTZA BEREZIA - ETORKINAK ETA MULTIKULTURALISMOAREN TRATAERA HEZKUNTZAN - IDAZKERA TXARRA? EZ, ESKERRIK ASKO